

IRUÑA HIRIKO MUGIKORTASUNARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Iruñeko Udalak bere konpromisoa agertzen du ingurumena babesteko, eremu publikoa, bide-segurtasuna, eta, azken buruan, hiriko bizitza-kalitatea hobetzeko, bere gain hartuz *Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Toki Itunak* 2005ean sustatutako *Iruñeko Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunaren* printzipioak eta bertan jasotako honako helburu hauek erdiestea xede harturik:

1. Oinezkoak bilakatzea protagonista nagusi hiriko mugikortasunaren aferetan.
2. Garraio publikoaren erabilera bultzatzea ibilgailu pribatua erabiltzearen orde.
3. Bizikleta sustatzea garraio alternatibo gisara.
4. Ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzea.
5. Aparkatzeko guneak antolatzea mugikortasun jasangarriaren printzipioekin bat.
6. Zamalanen eragina ahalik eta gehien gutxitzea auzotarrengan eta mugikortasun-sisteman.
7. Hirian barna zirkulatzeko diziplina hobetzea, batez ere aparkatzekoa.
8. Bide-segurtasuna hobetzea, arrisku gutxiagoko mugikortasuna lortzeko neurri gisara.
9. Garraibideen arteko intermodalitatea sustatzea.

10. Ibilgailu motordunen zirkulazioak eragindako kutsadura atmosferiko eta akustikoaren mailak kontrolatu eta gutxitzea.
11. Itun honen helburuak hirigintza-planeamenduan txertatzea.
12. Informazio-, kontzientzia- eta hezkuntza-jarduketak egitea.
13. Gizarte-desorekak –arrazoi sozioekonomikoek, genero zein adineko zioek edota desgaitasunek eragindakoak, eta oro har kolektibo zaugarrien kasuan– gutxitzea, hiriko mugikortasunaz bezainbatean.

Mugikortasun Jasangarriko Planean ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruñerriko *Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana* egin zuen 2007-2008an. Planaren ondorioetan, honako hauek nabarmentzen dira:

- Zirkulazio-piramidea, honako lehentasun hauekin bat: oinezkoak, garraio publikoa, bizikletak, ibilgailu pribatuak.
- Helburua, Iruñerriko egungo garraio-banaketa alderantzikatzea; izan ere, orain inguruneko hirien artean azkenetakoak gara eta joera hori antiziklikoa da.

Helburu horiek, hain zuzen, berretsi egin ziren Mankomunitateak 2013an mugikortasunari buruz egindako etxez etxeko inkestan. Inkestan, hain zuzen, islatuta agertzen da askoz ere gutxiago erabiltzen direla garraiobide jasangarriak eta gero eta joera handiagoa dagoela ibilgailu pribatua erabiltzeko.

Bidaiatzeko nagusiki erabilitako garraiobideak Iruñerrian				
Urtea	Oinez	Garraio publikoa	Ibilgailu pribatua	Beste zenbait



1996	% 43,77	% 14,4	% 36,8	% 5,1
2013	% 42,1	% 12,7	% 41,1	% 4,1

Aurrekari horiek kontuan harturik, Iruñeko Udalak honako estrategia hau hartu du bere gain:

- Arau aurreratuak sortzea, garraio jasangarrien erabilera lehenesteari begira, bide emateko autoek berezko duten eremu publikoaren erabilera oinezkoek eta autobusaren zein bizikletaren erabiltzaileek bereganatu dezaten.
- Azpiegiturak sortzea joan-etorri jasangarriak errazteko eta hirian autoaren erabilera estentsiboa murrizte aldera.
- Hiri-espazioaren geroko banaketaren gainean eragina edukitzea, oinezkoen guneak eta hiri-guneen erabilera partekatua sustatzeko.

2016. urtean zehar, Iruña hiriko Mugikortasunari buruzko Udal Ordenantza egin da.

Hura egitean ahalik eta adostasun handiena bilatzea ezinbestekotzak jo izan da. Hori horrela, udal-teknikarien lanari oinezkoen eta bizikleten behatokiaren lankidetzaren behar zaio. Behatokia udalez gaindiko teknikariek eta mugikortasun jasangarriaren esparruan prestigio handia aitortua duten pertsonak osatzen dute. Halaber, partaidetza-organo horrek lana irekiak egin zituen herritarrekin, ahalik eta ekarpen zein iradokizun gehien biltze aldera.

Ordenantza berriak gehitutako berrikuntzen artean bada bizikleten bidezko mugikortasuna hiriaren egunerokoan sustatzea. Hori horrela, Ordenantzak nahi du bizikletak bultzatzea hiriko garraio-banaketan, Europako batez-bestekoaren pare jartzeraino. Xede hori harturik hainbat neurri berri ezarri dira, hala nola ziklistendako anbar koloreko semaforoak, kontrako noranzkoan zirkulatzeko aukera, erreieren erditik zirkulatzeko lehentasuna eta ziklo-kaleak.

Bidegorriek aparteko aipamena merezi dute: beste baliabide bat gehiago dira mugikortasun jasangarriaren alde egin daitezkeen esku-hartzeen barruan. Egun,



lehentasuna ematen zaio bidegorriak galtzadan ezartzeari, aurreko ereduaren irizpideen kontra, non elkarbizitza-espaloiak ezartzen baitziren. Eredu berrian gero eta txikiagoa izanen da ziklisten eta oinezkoen artean egun dagoen gatazka. Nolanahi ere, kontuan harturik zer atzeraturik dagoen gure hirian bizikletak galtzadara igarotzea bertan zirkulatzeko, Ordenantzak bereziki zaintzen du ziklisten segurtasuna. Horretarako, bada, bidegorri babestu baten ereduaren aldeko apustua egiten da hiriko bide nagusietan, eta gainerako bideetan zirkulazioa moteltzeko neurriak hartuko dira.

Aldi berean, eta adingabekoei zein mugikortasun murriztuko pertsoneri dagokienez, baimena ematen zaie salbuespenez bizikletaz espaloietan ibiltzeko, betiere oinezkoei lehentasuna emanda.

Iruñerriko metropoli-eremua osatzen duten hiriei dagokienez, arauen arteko harmonizazioa bilatzea da ordenantzaren xedea, epe ertainean hurbiltze aldera arau bat edo arau-multzo bat edukitzera eskualde osorako, joan-etorriek eta mugikortasunak, berez Iruñerria osoan barna egiten direlako.

Azken finean, arau honen bidez lortu nahi da Iruña inguruko hirien parera iristea, urteak igaro direlako horietan mugikortasun jasangarriago baten eredia ezarri zutenetik. Halaber, ordenantzak europar konpromisoetara hurbiltzen gaitu, berotegi efektuko gasak murrizteari dagokionez, eta bidea ematen du eremu publikoaz bestelako pertzepzioa edukitzeko, non pertsonak baitira hiri-diseinuaren erdigune eta autobusek zein bizikletek lehentasuna baitute ibilgailu pribatuen erabileraren ginetik, azken horren erabilera sustatuko ez delarik.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.
2. artikulua.- Udalaren eskumena.
3. artikulua.- Aparkatze eta zirkulazioaren antolaketa.

II. TITULUA.- ARAU OROKORRAK ZIRKULAZIO JOKABIDERAKO

I. KAPITULUA. - JOKABIDERAKO ARAU OROKORRAK

4. artikulua.- Gidarien betebeharrak.
5. artikulua.- Hiri-garraioa.
6. artikulua.- Hiriarteko garraio kolektiboa.
7. artikulua.- Isurpen kutsagarrien debekua, zarata eta ibilgailuak berritzeko lanak.
8. artikulua.- Ibilgailuak larrialdiak artatzen.
9. artikulua.- Jokabidea larrialdien kasuan.
10. artikulua.- Kalteak bideko elementuei eta ibilgailuei.
11. artikulua.- Ziklomotoreak eta motozikletak.



12. artikulua.- Zirkulazio trinkoko ordutegiak.

II KAPITULUA.- OINEZKOEN IGAROTZA

- 13. artikulua.- Oinezkoen igarotza.
- 14. artikulua.- Oinezkoen eremuak.
- 15. artikulua.- Bizitegi-kaleak.
- 16. artikulua.- Mugak oinezkoen zirkulazioari.
- 17. artikulua.- Udalaren ahala.
- 18. artikulua.- Sarbide kontrolatuko eremuak.
- 19. artikulua.- Baimenak.

III. KAPITULUA.- PATINEN ETA MONOPATINEN IGAROTZA.

- 20. artikulua.- Patin, patinete, monopatin eta horrelakoen zirkulazioa.
- 21. artikulua.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera.

IV. KAPITULUA.- MUGIKORTASUN BERTIKALA

- 22. artikulua.- Mugikortasun bertikala.
- 23. artikulua.- Arau orokorrak, hiri-igogailu publikoak erabiltzeko.
- 24. artikulua.- Kasu bereziak.

V. KAPITULUA.- BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA ETA ERABILERA

- 25. artikulua.- Arau orokorrak bizikleten zirkulaziorako.
- 26. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa galtzadan.
- 27. artikulua.- Zirkulazioa ziklo-kaleetan eta ziklo-errietan.
- 28. artikulua.- Semaforoak soilik zikloentzat.
- 29. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa espaloietan.
- 30. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa, oinezkoen pasabideetan eta ziklisten pasabideetan.
- 31. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa bizitegi-kaleetan.
- 32. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa eta mugikortasun murriztuko pertsonen zirkulazioa aulkietan eta trizikloetan, parke eta pasealekuetan barna.
- 33. artikulua.- Segurtasun- eta ikusgarritasun- osagarriak, eta kaskoaren erabilera.
- 34. artikulua.- Ziklisten gailuak eta berariazko seinaleztapena.
- 35. artikulua.- Salgaien eta pertsonen garraioa.
- 36. artikulua.- Aparkatzea eta bizikletak aparkatzeko euskarriak.
- 37. artikulua.- Bizikleten erregistroa.
- 38. artikulua.- Bizikletak erretiratzea.

VI. KAPITULUA.- ABIADURA

- 39. artikulua.- Abiadura mugak.
- 40. artikulua.- Abiadura inguruabarretara egokitzea.
- 41. artikulua.- Abiadura moteltzea.

III. TITULUA.- ZAMALANAK.

- 42. artikulua.- Arau orokorrak.



43. artikulua.- Denbora-tarteak.

44. artikulua.- Kasu bereziak.

IV. TITULUA.- GELDIALDIA ETA APARKATZEA.

I. KAPITULUA.- DESGAITASUNEN BAT DUTENENDAKO APARKATZE-TXARTELAK, ERRESERBATUAK ETA APARKATZEA.

45. artikulua.- Desgaitasunen bat dutenendako aparkatze-txartela, erreserbatuak eta aparkatzea.

46 artikulua.- Aparkatze-toki erreserbatuen seinaleztapena.

47. artikulua. Beste aparkatze-toki erreserbatu batzuk.

II. KAPITULUA.- PASABIDEETARAKO LIZENTZIAK.

48. artikulua.- Pasabideetarako lizentziaren definizioa.

49. artikulua.- Pasabide-lizentziaren baldintzak.

50. artikulua.- Ordutegia.

51. artikulua.- Seinaleztapena.

52. artikulua.- Zintarria beheratzea edo pasabidea.

53. artikulua.- Pasabideetarako lizentziak ukitutako eremuan aparkatzea.

54. artikulua.- Fidantza.

55. artikulua.- Erantzukizuna.

56. artikulua.- Eskabidea eta dokumentazioa.

57. artikulua.- Baimena.

58. artikulua.- Pasabide-lizentziaren iraungipena.

59. artikulua.- Pasabide-lizentziaren iraungipenak sortutako betebeharrak.

60. artikulua.- Fidantza itzultzea.

61. artikulua.- Debeku orokorrak.

III. KAPITULUA.- GELDIALDIAK ETA APARKATZEA.

62. artikulua.- Arau orokorrak.

63. artikulua.- Autobusak, kamioiak, atoiak eta karabanak.

64. artikulua.- Geldialdiak.

65. artikulua.- Aparkatzea.

V. TITULUA.- KULTUR EDO KIROL EKITALDIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUKETAK BIDE PUBLIKOAN.

66. artikulua.- Baimenak.

67. artikulua.- Baimen-eskaera.

68. artikulua.- Baimena ematea.

69. artikulua.- Laguntzaileak egon beharra.

70. artikulua.- Bide-segurtasuneko arduraduna.

71. artikulua.- Fidantza.

72. artikulua.- Espazio-erreserbak.



73. artikulua.- Ibilbidearen seinaleztapena.

74. artikulua.- Baldintzak ez betetzea.

VI: TITULUA.- IBILGAILU ABANDONATUAK.

75. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

76. artikulua.- Prozedura.

VII. TITULUA.- ZAMA ARRISKUTSUEN GARRAIOA ETA IBILGAILU BEREZIAK.

77. artikulua.- Zirkulazioa.

78. artikulua.- Aparkatzea.

79. artikulua.- Ibilgailu bereziak.

80. artikulua.- Bestelako ibilgailuak.

VIII. TITULUA.- SEINALEZTAPENA.

I. KAPITULUA. INSTALAZIOA.

81. artikulua.- Kokapena.

82. artikulua.- Aplikazioa.

II. KAPITULUA. EDUKIA.

83. artikulua.- Edukia.

84. artikulua.- Bizikleta-bideak.

IX. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. KAUTELAZKO NEURRIAK.

I. KAPITULUA.- IBILGAILUAK IBILGETZEA.

85. artikulua.- Ibilgailuak ibilgetzea.

II. KAPITULUA.- IBILGAILUAK ERRETIRATZEA.

86. artikulua.- Ibilgailuak erretiratzea.

87. artikulua.- Arriskua eta zirkulazioa larriki tratatzea.

88. artikulua. Beste zenbait kasu.

89. artikulua.- Erretiratze-lanak bertan behera geratzea.

III. KAPITULUA.- ZEHAPEN PROZEDURA.

90. artikulua.- Prozedura.

91. artikulua.- Arau-hausteen tipifikazioa.

92. artikulua.- Laster ordaintzea.

93. artikulua.- Instrukzioa.

94. artikulua.- Udal-eskumenik eza.

95. artikulua.- Gida-baimena etetea edo ezereztea eta puntu-galera.

96. artikulua.- Jakinarazpenetarako helbidea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK



LEHENA.- PASABIDE-LIZENTZIAK AURREKO ARAUDIAREKIN BAT.

BIGARRENA.- IZATEZKO EGOERAK.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.

BIGARRENA



I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua- Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Ordenantza honek xede dauka Iruñeko udal-mugarteko bideetako zirkulazioa arautzea.
2. Ordenantza honetan jasotako manuak Iruñeko udal-mugarte osoan dira aplikagarri eta haietan hauentzako betebeharrak zedarritzen dira: zirkulaziorako egokiak diren hiri-bide eta lurzoruen titularrak, halako gaitasunik izan ez baina guztion erabilerakoak direnenak, eta, beste arauen kalterako, erabiltzaile-multzo zehaztugabeek erabilitako bide eta lurzoru pribatuen titularrak.

2. artikulua.- Udalaren eskumena.

Hona Udalaren eskumenak:

- a) Udal-mugarteko hiri-bideetan zirkulazioa antolatu eta kontrolatzea, horren zaintza udaltzainen eta langile laguntzaileen bidez, bide horietan egiten diren arau-haustekak salatzea eta horien zehapena, noiz eta eskumen hori ez baitzaio esleitu beste administrazio bati.
- b) Hiri-bideetako erabilpenak arautzea izaera orokorreko xedapenen bitartez, betiere bateragarri egite aldera erabiltzaile guztien artean aparkatzeko tokiak berdintasunean banatzea, ibilgailuen zirkulazioaren arintasunari eustea eta oinezkoek kaleak erabiltzea.
- c) Ibilgailuak hiri-bideetatik erretiratzea eta, araudiak halakorik jaso gero, horiek gordailuan atxikitzea.
- d) Kirol-probak egiteko baimenak ematea, horiek osorik eta bakarrik Iruñeko udal-mugartean egiten badira.
- e) Arauz ezarritako probak egitea, alkohol-intoxikazio maila edo substantzia estupefaziante, psikotropiko edo estimulatuzaileek eragindakoa zehazteko, Udaltzaingoa zein bidetan duen bide-segurtasunaren zaintza eta kontrolaren eskumena eta bertatik zirkulatzen duten gidariei.
- f) Bideak ixtea, halakorik beharrezko izanez gero.
- g) Baimenak ematea, pasabideak jartzeko, guneak aldi baterako eta betiko erreserbatzeko eta zirkulazio murriztuko eremuetara sartzeko.



3. artikulua.- Aparkatze eta zirkulazioaren antolaketa.

1. Udal-agintaritzari dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan, jabetza pribatukoak izanik ere, aparkatzearen eta zirkulazioaren antolamendua baimentzea.
2. Horrenbestez, partikularrek debeku dute, arau-hauste larriak izaki, aparkatze-tokien antolatzea, gunek erreserbatzea, zirkulazioa ixtea eta seinaleak paratu edo kentzea, salbu eta horretarako Udalaren baimena badute.
3. Udaltzaingoa aldi baterako aldatu ahalko du zirkulazioaren antolaketa hiriko parteren batean, edota toki baterako sarrera debekatu pertsoneri zein ibilgailuei; xede horretarako, beharrezko seinaleak jarri edo kendu ahalko dira behin-behinean, bai eta beharrezko diren neurriak hartu ere, segurtasuna eta zuzen zirkulatzea sustatze aldera.
4. Udal-agintariek aldi baterako debekatzeko ahalko dute ibilgailuak aparkatzea baimenduta dauden jarduerak egiteko okupatuko diren eremuetan, edo konponketa-, seinaleztapen-, mantentze- edo garbiketa-lanak egin behar dituztenetan. Halakoetan, eremu horiek zedarrituko dira, eta debekua 24 ordu lehenagotik seinaleztatuko da, neurria noiz abiatu aipatzen duten informazio-seinaleen bidez.

II. TITULUA.- ARAU OROKORRAK ZIRKULAZIO JOKABIDERAKO.

I. KAPITULUA. - JOKABIDERAKO ARAU OROKORRAK.

4. artikulua.- Gidarien betebeharrak.

Ibilgailu baten gidariak (kontzeptu honetan bizikletak ere sartzen dira) betebehar dute beren mugimendu-askatasunari, beharrezko ikuseremuari eta gidatzeko etengabe arreta emateari eustea, betiere beren segurtasuna eta bideko gainerako erabiltzaileena bermatze aldera. Xede horretarako, bereziki zaindu beharko du jarrera egokia edukitzea eta gainerako bidaiariak ere eduki dezatela, bai eta garraioan daramatzan animaliak zein objektuak egoki kokatzea ere, gidarien eta besteen artean interferentziarik egon ez dadin.

1. Berriaz debekatzeko dira honako hauek:

- a) Gidatu bitartean erabiltzea gidatze-jardunean arreta etengabe jartzearekin bateraezin diren ikusizko pantailak, telefonia mugikorreko gailuak edo beste edozein komunikazio-bitarteko edo sistema, salbu eta komunikazioa gauzatzen bada ez eskurik ez kaskorik, aurikularrik edo antzeko gailurik erabili gabe.

Ondorio horietarako salbuespentzat jotzen da gidariaren begi-bistan paraturik dauden monitoreak erabiltzea –horiek beharrezkoak badira pertsonak oinez sartzeko eta ibilgailutik jaisteko orduan ikusmena ahalbidetzeko– edo atzeko maniobrak ikusteko kamerak edo GPS gailua, zeina bakarrik bidaideek manipulatzeko ahalko baitute, edo ibilgailua aparkaturik dagoenean. Salbuespen dira, baita ere, taximetroa edo ibilgailuak kudeatzeko sistema erabiltzea, auto-taxien kasuan, eta komunikazio-sistemak edo autobusak kudeatzeko sistemak erabiltzea, hiri-garraioko autobusen kasuan.



- b) Soinua jaso edo erreproduzitzen duten gailuei lotutako kaskoak edo aurikularrak erabilia gidatzea.
- c) Halako ibilgailu batekin gidatzea ezen bere kristal-azalerak oztopatzen baitio gidariari bidea garbi ikustea, horren arrazoia edozein delarik.
- d) Ibilgailuaren atea irekitzea hura erabat gelditu baino lehen edo bidearen gainerako erabiltzaileei arriskua edo oztopo eraginda.
- e) Mota orotako sistemak edo mekanismoak instalatzea, horiek zirkulazio-agenteen zaintza saihesteko erabiltzen badira.
- f) Bidearen beste erabiltzaileei seinaleak egitea, haiek zirkulazio-agenteen zaintza saihestu dezaten.

5. artikulua.- Hiri-garraioa.

1. Bidaiarien garraio kolektiboko ibilgailuen zirkulazioa errazte aldera, gainerako ibilgailuen gidariek, ahal delarik, albo batera egin behar dute, edo abiadura murriztu, gelditu arte beharrezkoa bada, garraio kolektiboko ibilgailuek behar dituzten maniobrak egin ditzaten, geraleku gisara seinaleztaturik dauden tokietatik abiatu ahal izateko.
2. Udal-agintaritzak errei batzuk erreserbatzen ahalko ditu kategoria jakin bat duten ibilgailuak ibiltzeko, eta **kategoria horretakoak ez direnek debeku izanen dute haietan barna igarotzea.**
3. Erabilera murriztuko erreak bereizten ahalko dira erabilera orokorrekoetatik, zoladuran pintura bidez seinaleztatuta edo seinale argidunak edo bereizgailu fisikoak paratuta, betiere horiek gidariek ikusteko modukoak badira.

6. Artikulua.- Hiriarteko Garraio Kolektiboa.

1. Lanean ari direla, Iruña abiapuntu edo helmuga duten hiriarteko garraio kolektiboko ibilgailuek Iruñeko Udalaren autobus-geltokian baino ezingo dituzte bidaiariak hartu edo utzi.
2. Turismo-garraioari dagokionez, gure hiria bisitatzeko duten pertsonen intereseko leku guztietara erraz iristeko aukera izan dezaten bi motatako geralekuak seinaleztatuko dira turismo- edo kultura-zerbitzuko autobusendako:
 - a. Geraleku horietan, ibilgailuek ezin izanen dute gainditu 15 minutuko geraldia, eta tarte horretan osoan autobusean geratuko da gidaria, motorra itzalita duela.
 - b. Geraleku horiek seinaleztaturik egonen dira, eta izan daitezke bakarrik turismo-ibilgailuek erabiltzekoak edo bateragarriak autoekin, garraio publikoarekin edo zamalanetarako ibilgailuekin.
3. Bidaiarien ohiko garraioa. Organo eskudunak baimena ematen ahalko du, bidaiariak Autobus-geltokitik kanpo hartu eta uzteko, udal-organo eskudunak aurrez aginduzko txostena



eman eta gero, erabilera publikoko ohiko garraio zerbitzuei edo zerbitzu bereziei (eskola-, lan-zerbitzuak eta abar) zuzenduak, erabilera publikoko edo gizarte intereseko arrazoiengatik.

4. Bidaiarien eskatu ahalako garraioa. Udal-organo eskudunak baimena ematen ahalko du, bidaiariak Autobus-geltokitik kanpo hartu eta uzteko, garraio-enpresak aurrez halakorik eskatuta, pertsona juridiko baten egoitza bada garraioen abiapuntua edo helmuga, betiere horren langile, ikasle, elkarkide eta abarrek erabil dezaten.

7. artikulua.- Isurpen kutsagarrien debekua, zarata eta ibilgailuak berritzeko lanak.

1. Ezin izanen dute zirkulatu Ordenantza honek arautzen dituen bideetan barna indarreko legeek zarata-, gas- eta ke-isurpenei buruz ezarritako mugak gainditzen dituzten ibilgailuek.

2. Debeku da ihes-hodi libre edo ez-eraginkorra duten ibilgailuen eta ziklomotorren zirkulazioa.

3. Zehapena ezarriko da ibilgailuen soinu-alarmak arrazoirik gabe pizteagatik.

4. Ezin izanen dute, ezta ere, bide horietan barna zirkulatu baimendu gabeko berrikuntza baten xede izan diren ibilgailuek.

5. Ibilgailuen gidari guztiak beharturik daude gerta daitezkeen aipatu hutsuneak atzematea ahalbidetzeko arauzko proba guztiak egin daitezen laguntzera.

6. Debeku da seinaleztapen akustikoa erabiltzea lehentasunik ez duten ibilgailuetan, honako salbuespen hauekin bat:

- Istripu bat ekiditeko.
- Inguruabar bereziki larriak gertatu eta horien ondorioz lehentasunezko ibilgailuek egin ohi dituzten zerbitzuetako bat egin behar badute.

7. Bozgorailuak kanpoan edo kanpora begira jarrita daramatzaten ibilgailuek debeku dute zirkulatzeari, salbu eta horretarako udal-baimena badute, betiere zehazturik dauzkatela zirkulatzeko ordutegiak, zarata-isurpenen mugak eta zirkulatzeko eremuak, halakorik balitz.



8. artikulua.- Ibilgailuak larrialdiak artatzen.

1. Igarotzeko lehentasuna edukiko dute gainerako ibilgailuen eta bideko gainerako erabiltzaileen gainetik larrialdi-zerbitzuetako ibilgailuek, hala publikoak nola pribatuak izaki, halako zerbitzu bat egiten ari direnean. Abiadura-mugak gainditzen ahalko dituzte eta salbuetsita egonen dira arauzko kasuetan eta baldintzetan xedatutako gainerako arauak eta seinaleak betetzetik, betiere gidariak horren gaineko erantzukizuna duelarik.
2. Larrialdi-zerbitzuetako ibilgailuen gidariak neurrian erabiliko dute araubide berezi hori larrialdi-zerbitzu bat ematen dutenean, bideetako bidegurutzetan igarotzeko lehentasuna edo semaforoaren seinaleak ez urratzen saiatuta, eta egitekotan kontu handiz jokatuta eta egiaztaturik ez dagoela oinezkoak harrapatzeko arriskurik eta gainerako ibilgailuen gidariak geratu direla edo bidea errazten diotela. Larrialdi-zerbitzu bat egiten ari direnean soilik erabil ditzakete lehentasunezko argiak eta soinuak.
3. Agintaritzaren agenteek beren ibilgailuak erabili edo kokatu ahalko dituzte beharrezko den bideko aldean, bidearen erabiltzaileei laguntza ematen ari zaizkienean edo zerbitzuaren zein zirkulazioaren beharrek horretara behartzen dituztenean.
4. Larrialdi-zerbitzu bat ematen ari diren ibilgailuek, horretan ari direla ohartarazteko, argi-seinaleak eta soinu-seinale berezien gailua erabiliko dituzte, betiere arau erregulatuak ibilgailu horietarako ezarritakoarekin bat.
5. Lehentasunezko ibilgailu bat hurbiltzen ari dela ohartarazten duten seinaleak sumatu bezain laster, gainerako gidariak beharrezko neurriak hartuko dituzte, une eta toki bakoitzeko inguruabarren arabera, bidea errazteko, alde batera eginda edo, beharrezkoa balitz, ibilgailua gertatuta.

9. artikulua.- Jokabidea larrialdien kasuan.

1. Bideetako erabiltzaileek zirkulazio-istripu bat eduki, ikusi edo horren berri badute, biktimei, halakorik balitz, laguntza ematera beharturik daude edo haienezko laguntza eskatzera, eta arrisku edo kalte handiagoak gerta ez daitezen laguntzera zein berrezartzera, ahal delarik, zirkulazioaren segurtasuna eta egitateak argitzera, hori dena Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 129. artikuluan ezarritakoarekin bat.
2. Istripu edo matxura baten ondorioz ibilgailu batek edo bere zamak galtzada oztopatzen badute, gidariak, behin ibilgailua edo sortutako oztopoa behar bezala seinaleztatu eta gero, beharrezko neurriak hartuko dituzte, hura ahalik eta denbora gutxienean erretiratzeko, ibilgailua, posible bada, behar bezala aparkatu beharko dutelarik, edo beharrezko neurriak hartu beharko dituztelarik ibilgailua eta zama bidetik ahalik eta denbora gutxienean erretiratzeko.



10. artikulua.- Kalteak bideko elementuei eta ibilgailuei.

1. Zirkulazioa arautzen duten seinaleetan edo bide publikoko beste edozein elementutan kalterik eraginez gero, gidariek horren berri eman beharko diote ahalik eta lasterren Iruñeko Udalari.
2. Gidari batek kalterik sortzen badu gidaririk gabe aparkatuta dagoen ibilgailu batean, beharturik egonen da ibilgailuaren titularra aurkitzen saiatzera eta hura ohartaraztera egindako kaltearen gainean, betiere beren nortasun-datuen berri emanik.
3. Hura aurkitzea ezinezko balitz, hurbilen den agintaritzaren agenteari jakinaraziko dio, edo, bestela, Iruñeko Udaltzaingoarean zentzualan.

11. artikulua.- Ziklomotoreak eta motozikletak.

1. Ziklomotoerek argi laburrak piztuta zirkulatu behar dute beti.
2. Hiru gurpileko motozikletak, motozikletatzat homologaturik egonez gero, ondorio guztietarako bi gurpilekoak bezala izanen dira.

12 artikulua.- Zirkulazio trinkoko ordutegiak.

1. Zirkulazio trinkoko ordutzat joko dira astelehenetik ostiralera bitarteko egun baliodunetan 07:30etik 09:00etara, 12:30etik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
2. Zirkulazio trinkoko ordutegietan zirkulazioaren arintasuna bermatzeko, udal-agintaritzak ahalik eta gehien murriztuko du zirkulazioa oztopatu edo bidea okupatzea ekar dezaketen baimenak oro ematea zirkulazio trinkoko ordutegietan, betiere horiek bideratuta zirkulazio ez-trinkoko ordutegietara, gauetara edo jai-egunetara.

II. KAPITULUA. OINEZKOEN IGAROTZA

13. artikulua.- Oinezkoen igarotza.

1. Oinezkoak haiendako eremuetan barna zirkulatzeko ahaliko dute: espaloiak, pasealekuak, parkeak eta bizitegi-kaleak.
Galtzadak eta bizikleta-bideak gurutzatzeko, seinaleztatutako igarobideak erabiliko dituzte.
2. Oinez dabiltzanak eskuetan bizikleta bat garraiatzen dutelarik, oinezkotzat joko dira ondorio guztietarako.
3. Aulkietan edo trizikloetan zirkulatzeko duten mugikortasun murriztuko pertsonak lehentasuna edukiko dute oinezkoen gainetik, eta gainerako oinezkoen erreserbatutako tokietan ez ezik, bizikleta-bideetan ere –non lehentasuna ere edukiko baitute– zirkulatzeko ahaliko dute, betiere horiek zirkulazio motordunetik bereizita badaude.

4. Oro har, espaloia okupatu behar duten obra-kontratistek baimena eskatu beharko dute horretarako, eta eskaeran zehaztu beharko dituzte hartu beharreko segurtasun-neurriak, ordezko espaloiak eta abar, oinezkoen zirkulazioa arriskurik gabe errazteko. Espaloia okupatzeko beharrezkoa izanen da Udalak halakorik berariaz baimentzea, bai eta horrek hartzen ahal dituen neurri zuzentzaileak betetzea ere.

14. artikulua.- Oinezkoen eremuak.

1. Oinezkoen eremua da pertsonak oinez ibiltzeko erreserbatuta dagoen bide-zatia, goratua edo beste nolabait mugatuta, eta barne hartzen ditu espaloiak, nasak eta paseoak.
2. Debekaturik dago zirkulatzea eta ibilgailuak aparkatzea oinezkoen eremuetan.
3. Oinezkoen eremuetan sartzeko eta aparkatzeko debeku orokorra gorabehera, udal-organo eskudunak berariazko baimenak ematen ahalko ditu, ibilgailu jakin batzuen alde, oinezkoen eremuetan zirkulatzeko, betiere ezinbesteko zioak tarteko. Kasu berezi horietan, ibilgailuen gehieneko abiadura 20 km ordukoa izanen da, eta gorde beharko dute oinezkoen lehentasuna.
4. Oinezkoen eremuak zutikako seinaleen bidez zedarrituko dira edo baliza-elementu mugikor zein iraunkorren bidez, halako moduz non eragotzi edo murriztuko baitira ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa.
5. Bizikletak pasealekuetan zirkulatu eta aparkatzeari dagokienez, ordenantza honen 32. artikulua bete beharko da (Mugikortasun murriztuko pertsonen zirkulazioa, bizikletan, aulkian eta trizikloan, parkeetan eta pasealekuetan barna).

15. artikulua.- Bizitegi-kaleak.

1. **Bizitegi-kaleak bereziki egokitutako zirkulazio-eremuak dira, eta haietan oinezkoen igarotzari ematen zaio lehentasuna. Bertan honako zirkulazio-arau berezi hauek aplikatzen dira:**
 - Ibilgailuek har dezaketen gehieneko abiadura orduko 20 kilometroan ezarri da, eta gidariek lehentasuna eman behar diete oinezkoei.
 - Ibilgailuak seinale edo marka bidez zedarritutako tokietan baino ezin dira aparkatu.
 - Oinezkoek zirkulazio-eremu osoa erabil dezakete. Baimenduta dago horietan jolastea eta kirola egitea. Oinezkoek ez diete ibilgailuen gidariei traba egin behar horretarako justifikatutako arrazoirik izan gabe.
2. Bizikletak bizitegi-kaleetan zirkulatu eta aparkatzeari dagokienez, ordenantza honen 31. artikulua bete beharko da (Bizikleten zirkulazioa bizitegi-kaleetan).
3. Bizitegi-kaleak zutikako seinaleek zedarrituko dituzte, honela:



(S-28 seinalea)

16. artikulua.- Mugak oinezkoen zirkulazioari.

Joan-etorriak oinez egiten dituztenek honako arau hauek bete beharko dituzte:

- a) Bidean ari diren gainerako erabiltzaileei eragozpenik sortu gabe ibiliko dira.
- b) Autobusen eta zerbitzu publikoko gainerako ibilgailuen zain daudelarik horretarako zedarritutako guneen barruan egonen dira, galtzada inbaditu gabe horiek gera daitezen eskatzeko.
- c) Ez dira espaloietan taldeka geldituko gainerako erabiltzaileen zirkulazioa oztopatuz edo eragotziz.
- d) Ez dira ez igo ez jaitsiko martxan dagoen ibilgailu batetik.
- e) Ez dute galtzada eta bizikleta-biderik inbadituko, ezta haietan geldituko ere.

17. artikulua.- Udalaren ahala.

Iruñeko Udalak sarbide kontrolatuko eremuak ezartzen ahalko ditu segurtasun arrazoiengatik, oinezkoen mugikortasuna errazteagatik edo komenigarri izan daitekeen beste edozein zioengatik. Halako eremuetan guztiz edo parte batez murrizten ahalko dira ibilgailuen zirkulazioa eta aparkatzea, eta baldintza zehatzak xedatuko dira eremu horietako zirkulazioaren nondik norakoak zedarritzeko.

18. artikulua.- Sarbide kontrolatuko eremuak (SKE).

Sarbide kontrolatuko eremuak udal-organo eskudunak emandako xedapen baten bidez arautuko dira.

Eremu horiek erregulatzen dituzten arauak urratzea administrazioko arau-haustetzat joko da zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko araudiarekin bat.

19. Artikulua.- Baimenak.

1. Oinezkoen eremuetan zirkulatu eta aparkatzeko indarrean dagoen debekuak ez du eraginik sortuko honako ibilgailu motordun hauetan:

1. Suteak prebenitu eta itzaltzeko zerbitzuko ibilgailuak.
2. Segurtasun-indar eta -kidegoen ibilgailuak.
3. Hondakinak jasotzeko zeregina dutenak.
4. Osasun-garraioko ibilgailuak.
5. Hileta-ibilgailuak.
6. Udal-zerbitzuak edo -kontratupekoak, esleituta dituzten zereginak gauzatzeko.
7. Berriaz baimendutako ibilgailuak.

2. Sarbide kontrolatuko eremuetara, bizitegi-kaleetara eta oinezkoen kaleetara sartu eta aparkatzeko berriaz baimenduta dauden gidariak, bai eta zamalanetarako baimena dutenek – betiere jarduera horretarako ezarritako ordutegiaren barruan– aparkatzen ahalko dituzte beren ibilgailuak horretarako bide-markaren bitartez seinaleztaturik dauden tokietatik kanpo, 1,5 metroko tarte gutxienez gordeta ibilgailuaren eta fatxadaren artean, eta oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa eragotzi edo oztopatu gabe, ez eta atari, saltoki edo baimendutako pasabideen sarbideak ere.

III. KAPITULUA: PATINEN ETA MONOPATINEN IGAROTZA

20. artikulua.- Patin, patinete eta monopatinen zirkulazioa.

1. Patinak, patineteak edo horrelako gailuak hauetan zehar ibil daitezke:
 - a) Oinezkoen eremuak.
 - b) Bizitegi-kaleak.
 - c) Espaloiak.
 - d) Bidegorri babestuak.
 - e) Bizikleta-espaloiak
 - f) Ziklo-bidexkak.
 - g) Parkeak eta pasealekuak.
 - h) Patinak, monopatinak, patineteak edo antzeko gailuak ezinen dira ibili ezein kasutan honako hauetan zehar:
 - a) Galtzada, salbu eta gurutzatzeko seinaleztaturik dauden tokietan.
 - b) Bidegorri ez-bereziak.



2. Patinatzaileek bizikleten abiadurara egokituko dute berea bizikleta-bideetan ibiltzen direnean, eta espaloietan barna ez dute gaudituko oinez dabiltzaneren abiadura eta egokituko dituzte beren mugimenduak oinez dabiltzaneren mugimenduen arabera, haiei eragozpenik edo arriskurik sortu gabe.
3. Patin, monopatin, patinete edo antzeko gailuetan ibiltzen direnak oinezkotzat jotzen dira, Ordenantza honetan ezarritako baldintzekin bat.
4. Monopatinak honako eremu hauetan ibil daitezke, betiere Ordenantza honetan bide mota bakoitzarentzat aurreikusitakoa errespetatuz egiten badute:
 - a) Oinezkoen eremuak.
 - b) Bizitegi-kaleak.
 - c) Espaloiak.
 - d) Bizikleta-espaloiak
 - e) Ziklo-bidexkak.
 - f) Parkeak eta pasealekuak.

Oro har, ez dute baimenik bidegorrietan zirkulatzeko.

5. Monopatinak eta antzeko gailuak bakarrik erabil daitezke kirol-xedeetarako berariaz seinaleztaturik dauden eremuetan.
6. Ezin dira ezein kasutan ere beste ibilgailuei lotuta edo atoian eraman.

21. artikulua.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera (MPI)¹.

MPIen SAILKAPENA

DGTk 2016ko azaroaren 3an Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruz (MPI) emandako 16/V-124 instrukzioarekin bat, zeinak Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuen erabilera arautzen baitu.

Makina horiek gure kaleetan benetan oso ugari izan daitezkeela kontuan harturik eta egoera horri aurre hartzeari begira, gailu horiek honela bereiz daitezke haien arrisku-mailaren eta erabileraren xedearen arabera, betiere Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak ezarritako kalifikazioaren arabera:

- *A maila: Ez dute 20 km/h-ko abiadura gainditzen, haien masa 25 kg-tik beherakoa da eta pertsona batentzako tokia dute. Maila honetan daude plataforma motordunak, gurpil elektrikoak (solowheel) eta patinete elektriko txikiak.*
- *B maila: gehieneko abiadura 30 km/h dute eta haien masa 50 kg-tik beherakoa da. Maila honetan daude segwayak eta patinete elektriko handiak.*
- *C maila: Bi gurpiletik gorako zikloak, gehieneko abiadura 45 km/h-koa dutela eta pisua, 300 kg. Maila honen barruan azpimultzoak daude: C0, C1 eta C2.*
- *C0 maila: Erabilera pertsonalerako.*
- *C1 maila: Pertsonak garraiatzeko , prezio bat ordainduta.*

1



- *C2 maila: Hirian salgaiak banatzeko.*

Energia zinetiko handieneko gailuek (C mailakoak) ezinen dute zirkulatu espaloia-aren gainean, ziklo eta bizikleten antzekoak baitira, eta bizikletek hiri-bideetan dituzten eginkizun eta betebeharrak berberak bete behar dituzte.

Gainerako MPlen kasuan, oinezkoen eremuetan zirkulatu behar dute, betiere oinezkoen lehentasuna eta erosotasuna errespetatuz.

Ordenantzak berariaz arautzen du pertsonen eta salgaien garraioa (C1 eta C2 mailak) 35. artikuluan eta beste zenbaitetan.

Patinete elektronikoen, monoziklo elektrikoen, segwayek, mugikortasun murriztuko pertsonendako motor elektronikodun aulkiak edo antzekoak Iruñean barna zirkulatu ahalakoa dute, honako baldintza hauekin bat:

1. Zirkulatu ahalakoa dute espaloietan, gainerako oinezkoen tokietan (oinezkoen kaleak, plazak, parkeak eta pasealekuak), bizikleta-espaloietan eta babesturik dauden bidegorrietan. Debeku dute zirkulazio motordunari gordetako galtzadetan zirkulatuzea.

2. Honako baldintza hauek bete behar dituzte zirkulatuzean, salbu eta bizikleta-bide bereizietan egiten dutenean:

- a) Espaloietan barna ez dute gaindituko oinezkoen dabilzaren abiadura eta egokituko dituzte beren mugimenduak oinezkoen dabilzaren mugimenduen arabera.
- b) Oinezkoengana errespetu osoa gordeta zirkulatu behar dute, halako moduz non ekidinen baitituzte bat-bateko maniobrak, zigi-zaga ibiltzea eta aurreratze arriskutsuak egitea.

3. Gailu hauetan ibiltzen diren pertsonak bete behar dituzte horiek erabiltzerakoan *Bizikleten zirkulaziorako arau orokorren* 25. artikularen 4., 5. eta 6. artikuluetan jasotako arauak.

4. 5 edo lagun gehiagok osatutako talde batek gailu horietan turismo-pasealdi bat edo bestelakorik egiteko, Udalaren baimena behar dute aldez aurretik, jarduerak berekin dakarrelako eremu publikoaren erabilera berezia gauzatzea.

IV. KAPITULUA.- MUGIKORTASUN BERTIKALA

22 artikulua.- Mugikortasun bertikala.

Hirian instalaturik dauden hiri-igogailu publikoak eta arrapala mekanikoak dira mugikortasun bertikaleko sistema osatzen duten azpiegiturak.

23 artikulua.- Arau orokorrak, hiri-igogailu publikoak erabiltzeko.

1. Igogailuen erabilera ez da ezein kasutan pribatiboa izanen, ezta bakarrik erabiltzaile baten aldekoa ere.



2. Erabiltzaileak ilaran duten tokiaren arabera sartuko dira igogailuetara, salbu eta mugikortasun murriztuko pertsonen kasuan, horiek lehentasunez sartuko baitira.
3. Erabiltzaileek gordeko dituzte hala igogailua funtzionatzeko mekanismoa nola barruko karga-ahalmena, zeina kabinaren barrualdean eta kanpoaldean adierazita baitago.
4. Kabinaren barrualdean erabiltzaileek ezinen dituzte honako hauek egin:
 - Kalterik eragin.
 - Zabor organikoa edo inorganikoa bota edo utzi, gorputzaren eskreziok barne.
 - Erre, edan edo jan.
 - Kabinaren barruan geratu sartzeko, bidaia egiteko eta irteteko behar baino denbora gehiago.
5. Baimenduta dago kabinan sartzea erosketa-gurdiekin, haurtxoen aulkixoekin eta antzekoekin, betiere barruan kokatzeko moduagatik ez bada oztopatzen gainerako erabiltzaileen sarrera. Halaber, mugikortasun murriztuko pertsonak mugitzeko laguntzen dieten gailuekin batera sartzan ahalko dira, hala nola aulki gurpildun, makulu eta abarrekin.
6. Kabinara etxeko animaliekin ere sar daiteke. Lotuta eta muturrekoa jarrita joan behar dute, edo, bestela, animaliak garraiatzeko kutxa batean sartuta, salbu eta itsuak edo ikusmen murriztuko pertsonak gidatzen dituzten txakurren kasuan (*Animaliak edukitzeari buruzko 06/95 udal-ordenantzan* jasotako animalien sailkapenarekin bat).
7. Kabinaren barruko aldearen luze-zabala nahikoa bada, bizikletak ere sar daitezke barrura, betiere baldintza hauekin bat:
 - Oinezkoen mugikortasun bertikala lehenesteari begira, igogailua guztiz beteta abiatu behar denean, bakarrik egoten ahalko dira barruan gehienez bi bizikleta.
 - Igogailua guztiz beteta dagoenean, bizikletak kabinaren bi aldeei itsatsita joanen dira, bi gurpilak lurrean paraturik dituztela eta erabiltzaileak behar bezala eutsirik.
 - Igogailuaren edukiaren xedeetarako, bizikleta bakoitza 2 tokizat zenbatuko da, tolestuta daudenean izan ezik, izan ere, tolestuta toki bakar batentzat hartuko da.
 - Igogailura sartzeko zain daudela, aurreikusten bada igogailua guztiz bete behar dela eta bi bizikleta jada barruan badaude, bizikleta daramaten gainerako erabiltzaileek tokia utziko diete bizikletarik ez daramatenei nahiz eta ilaran atzerago egon.
 - Iruñeko Udalak berariaz adieraziko du igogailu bakoitzean bizikletarik sar daitezkeen eta, baiezkoan, zenbat sar daitezkeen.

8. Ezin da mugikortasun bertikaleko azpiegiturarik erabili, ezta haietara sartu ere eraikuntza-materialak, hondakinak, industria-makinak edo bereziki handiak diren salgaiak edo elementuak garraiatzeko.

24 artikulua.- Kasu bereziak.

Iruñeko Udalak berriaz arautuko du, beharrezkoa balitz, mugikortasun bertikaleko sistema osatzen duten edo osa dezaketen beste zenbait azpiegituraren erabilera: arrapalak eta eskailera mekanikoak.



V. KAPITULUA.- BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA ETA ERABILERA

25. artikulua.- Arau orokorrak bizikleten zirkulaziorako.²

1. Ondoko artikuluetan jasotako salbuespenak eta baldintzak kontuan harturik, bizikletek honako gune hauetan barna zirkulatzen ahalko dute:

- Galtzadak.
- Bizikleta-bideak: bidegorriak deituta galtzadan kokaturik badaude, eta bizikleta-espaloiak, espaloietan barnakoak badira.
- Bizitegi-kaleak.
- Parkeak eta pasealekuak.
- Ziklo-bidexkak eta Iruñeko ibai-parkea.

2. Oro har, debeku da bizikletak espaloietan ibiltzea.

3. Bizikletak, bizikleta-espaloia duen kale batean ibiliz gero, aukeran izanen du bizikleta-espaloia edo galtzada erabiltzea. Bizikleta-espaloian ibiliz gero, Ordenantza honek 29. artikuluaaren bosgarren atalean bizikleten zirkulazioari buruz xedatutakoari men egin beharko zaio, bizikletak espaloia gainean ibiltzeaz bezainbatean.

4. Debekaturik dago bizikletan, patinetan, monopatinetan eta antzekoetan ibiltzea, baldin eta uhalez loturiko animaliekin batera egiten bada.

5. Debekaturik dago beste ibilgailuek, gailuek edo animaliek bizikletak herrestan eramatea.

6. Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorrekin bat:

- a) Ezin da bizikletarik gidatu, ezta beste ezein ibilgailu, patin, monopatin edo antzekorik ere, soinua jaso edo erreproduzitzen duten gailuei lotutako kaskoak edo aurikularrak erabiltzen ari badira.

² *Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II. eranskinean zehaztutakoarekin bat, honako definizio hauek ematen dira:*

- 1. *Zikloa: Gutxienez bi gurpil dituen ibilgailua, erabiltzen duten pertsonen ahalegin muskularrak mugiarazten duena, pedal edo biraderei eraginez.*
- 2. *Bizikleta: Bi gurpileko zikloa*
- 3. *Bizikleta elektrikoa: motorra darabilen bizikleta da, 0,5 Kw-ko potentzia gainditzen ez duena, gidariaren ahalegin muskularrari laguntzeko. Motorrak geratu behar du kasu hauetakoren batean:*
 - a. *Gidariak pedalei eragiteari uzten dionean.*
 - b. *Abiadura 25 km/h-tik gorakoa denean.*



- b) Ezin da bizikletarik gidatu, ezta beste ezein ibilgailu, patin, monopatin edo antzekorik ere, telefono mugikorretik hizketan ari bada edo gidatzeari eman behar zaion arretarekin bateraezin den beste edozein gailu erabiltzen bada.
- c) Substantzia sorgogarriak, edari alkoholduak, psikotropikoak, estimulatzaileak edo antzeko beste substantzia batzuk hartzeari dagokionez, ziklistek gainerako gidariek dituzten betebeharrak eta muga berberak dituzte.

26. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa galtzadan.

1. Ziklistak, aukeran, galtzadaren eskuineko erreian ibiliko dira, eta, ahal dela, erreiko edo bideko erdialdea erabiliko dute.

Ziklistek erreietatik edozeinetan barna zirkulatzen ahalko dute, bidearen ezaugarriek hala eskaturik edo ezkerretara jotzeko.

2. Ibilgailu motordunek bizikleten zirkulazioa erraztuko dute eta honako arau hauek bete beharko dituzte:

- a) Bere abiadura egokitzea bizikleten eta zikloen abiadurarekin.
- b) Ezinen dute bizikletak, zikloak edo mugikortasun murriztuko pertsonendako ibilgailuak aurreratzeko maniobrarik egin zirkulazioko errei berean.
- c) Ezinen dituzte jazarri bizikleten, zikloen edo mugikortasun murriztuko pertsonendako ibilgailuen gidariak.

3. Bizikleta bati aurre hartu nahi dioten ibilgailu motordunek zirkulazio-erriaz aldatu eta, betiere, 1,5 metroko tartea gutxienez gorde beharko dute maniobra egiterakoan. Halaber, bizikleta baten atzetik zirkulatzean, zuhurtziazko segurtasun-tartea gordeko dute, proportzionala bizikletaren abiadurarekin.

4. Bizikletek hiri-bideetan barna zirkulatzen dutenean seinaleak, oro har, eta araudia –trafiko, zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzkoa– bete beharko dituzte, bai eta udal-agintariek horretarako ezartzen duten beste edozein arau ere.

5. Bizikletek debeku dute garraio publikoari erreserbatutako erreian zirkulatzea. Udalak, aurrez Iruñerriko Mankomunitateari kontsulta eginda eta Udaleko Mugikortasun zerbitzuak eta Herritarren Segurtasunak txosten emanda, baimena ematen ahalko du, beharrezko seinaleen bidez, bizikletak ibil daitezen garraio publikoari erreserbatutako erreian barna, hura bus-bizi erreia bihurtuta. Errei mota horietan, bizikletek ahalbidetuko dute, posible denean, aurrea har diezaieten segurtasun-baldintza egokietan, eta ezin izanen dira ibili paraleloan edo biko ilaratan.

6. Bizikletak paraleloan edo biko ilaratan ibiltzen ahalko dira errei berean, salbu eta errei hori erreserbatutako badago bestelako ibilgailuentzat. Halako kasuetan, ziklista-taldea ibilgailu bakartzat hartuko da, semaforoak erregulatutako bidegurutzeetan, elkarguneetan, lehentasuna ematerakoan eta aurreratzeko maniobretan.



7. Baimena ematen ahalko da, salbuespenez eta herritarren segurtasunari zein hiri-ekologiari eta mugikortasunari buruzko eskumenak dituzten alorren aginduzko txostena edukita, ziklistek bi noranzkoetan zirkulatzeko, 30 km/h-ko edo gutxiagoko abiadura-muga duten noranzko bakarrek bideetan, betiere berariaz seinaleztatzen bada.

8. Pasabide semaforodunetan abiatze- edo geratze-eremuak eratuko dira, aurreraturik, bizikletentzat, behar bezala seinaleztatuta, bizikletei erreserbatutako gunek gisara. Pasabide horietan, bizikletek gainditzeko ahalko dituzte zirkulazioa geratzeko lerroak, hura geldirik eta argi berdearen zain dagoenean, gunek erreserbatuta sartzeko.

9. Ibilgailu motordunen zirkulaziotik babesturik ez dauden bidegorriak bakarrik ziklistek erabiliko dituzte. Abiadura-muga izanen da bidearen gainerako tartean ibilgailu bakoitzak duen berbera, betiere, 39. artikuluan (abiadura-mugak) ezarritakoarekin bat.

Oinezkoek behar bezala seinaleztaturik dauden tokietan barna gurutzatu beharko dituzte bidegorriak, eta ezin izanen dira bertan gelditu eta ibili.

10. Bizikletek, mugikortasun murriztuko pertsonendako aulkiek eta trizikloek, patinek eta antzekoek erabiltzen ahalko dituzte galtzadako bidegorri babestuak eta gainerako bizikleta-bideak. Halako bideen erabiltzaileek neurriko abiaduran zirkulatuko dute, betiere beharrezko zuhurtzia gordeta.

27. artikulua.- Zirkulazioa ziklo-kaleetan eta ziklo-erreietan.

1. Ziklo-kaleak deituko dira eta halakotzat seinaleztatu, gehienez 30 km/h-ko edo gutxiagoko abiadura-muga duten galtzadak, betiere haietan neurri osagarriak xedatu daitezkeelarik abiadura edo zirkulazioaren intentsitatea murrizteko.

2. Ibilgailu motordunen gidariek ziklo-kaleetan barna zirkulatzeko dutenean gehienez 30 km/h-ko edo gutxiagoko abiaduran, halakorik seinaleztatuz gero, eginen dute, betiere ziklisten lehentasuna gorde beharko dutelarik. Nolanahi ere, elkarguneetan errespetatu beharko dira hala jarrita dauden seinaleak nola igarotzeko lehentasunari buruzko arau orokorrak.

3. Noranzko berdinean zirkulatzeko errei bat baino gehiago dituzten bideetan, bizikletendako errei bat seinaleztatzen ahalko da, non gehienez ere 30 km/orduko abiaduran ibiltzen ahalko baita, bizikleta eta ibilgailu motordunen elkarbizitzarako gunek gisa. Ibilgailu motordunek abiadura doitu beharko dute bizikletenarekin bat, eta ezin izanen dituzte bizikletak aurreratu zirkulazio-errei beraren barruan.

28. artikulua.- Semaforoak soilik zikloentzat.

1. Oinezkoen pasabide semaforodunak –elkarguneetatik kanpo egon eta bizikletendako bakarrik diren geratze-guneak dituztenak– Mugikortasuneko eta Herritarren Segurtasuneko alorren aldeko txostenik bada, seinaleztatzen ahalko dira, argi hori keinukari batez, non galtzadan dabilzan ibilgailuenganantz zuzendutako ziklo baten silueta bat agertuko baita.



2. Argi keinukari horiak adieraziko du bizikletek egiten ahal dutela oinezkoen pasabideaz gaindi, behin egiaztaturik ez dituztela galtzada zeharkatzen ari diren oinezkoak arriskuan jartzen, oinezkoei lehentasuna emanaz eta abiadura motelean ibiliz.

29. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa espaloietan.

1. Oro har, debeku da bizikletak espaloietan ibiltzea.

2. Nolanahi ere, baimenduta dago 14 urte bitarteko adingabeak espaloietan barna bizikletan ibil daitezen, bakarrik edo haien ardura duen heldu batek edo bik lagunduta, zeinak espaloian ere ibiltzen ahalko baitira bizikletan. Hala helduek nola adingabeek errespetatu beharko dituzte une orotan oinezkoen lehentasuna eta beren abiadura egokitu oinezkoenera.

3. Bizikleten zirkulazioa espaloien gainean salbuespenez baimentzen ahalko da, betiere seinaleztaturik, Udalak horren aldeko txostena emanaz gero, bizikleten zirkulaziorako beste aukerarik ematen ez den kaleetan, horiek ez badaude seinaleztaturik 30 km/h-ra mugatutako kale ego bizitegi-kale gisara.

4. Bizikleta-espaloietan eta espaloiaren gaineko bidegorrietan, ziklistek errespetatu beharko dute une orotan oinezkoek zeharkatzeko duten lehentasuna, eta abiadura motelduko dute. Oinezkoek zeharkatzen ahalko dituzte, baina ez bertan geratu edo haietan zehar ibili.

5. Espaloian zirkulatzen ahalko dute, oinezkoei lehentasuna emanaz, adingabeak atoi edo aulkitxo homologatuetan garraiatzen dituzten helduak, betiere 35. artikuluan (Salgaien eta pertsonen garraioa) jasota dauden baldintzak betetzen direlarik.

6. Baimena dute espaloi gainean bizikletaz zirkulatzeko mugikortasun murriztuko pertsonak, betebeharrak izanen dutelarik oinezkoen lehentasuna errespetatzea eta abiadura oinezkoen abiadurara egokitzea.

30. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa, oinezkoen pasabideetan eta ziklisten pasabideetan.

1. Oinezkoen pasabideetan, ziklistek bizikletatik jaitsi eta oinez zeharkatuko dute galtzada.

2. Ziklisten pasabideetan, bizikletek honela jokatu dute:

- Abiadura murriztuko dute, oinezkoenera egokitu arte.
- Egiaztatuko dute galtzadan barna zirkulatzen duten ibilgailuen gidariek ikusi dituztela.

- Ziklisten pasabideak pedalei eraginez zeharkatuko dituzte, betiere lehentasuna dutelarik galtzadan barna zirkulatzen duten gainerako ibilgailuen gainetik.

31. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa bizitegi-kaleetan.



1. Bizitegi-kaleak dira honako ezaugarri hauekin bat zutikako seinaleen bidez seinaleztatuta daudenak:

- a) Bereziki egokitutako zirkulazioko kaleak dira, non oinezkoen igarotza lehentasunezkoa baita.
- b) Ibilgailuek har dezaketen gehieneko abiadura 20 km/h-koan ezarri da, eta gidariek lehentasuna eman behar diete oinezkoei.
- c) Ibilgailuak seinale edo marka bidez zedarritutako tokietan baino ezin dira aparkatu.
- d) Oinezkoek zirkulazio-eremu osoa erabil dezakete. Baimenduta dago horietan jolastea eta kirola egitea.
- e) Oinezkoek ez diete justifikaziorik gabe traba eginen ibilgailuei.

2. Bizikletek bizitegi-kaleetan zirkulatzen ahalko dute honako baldintza hauekin bat:

- a) Oinezkoen lehentasuna errespetatu beharko dute beti.
- b) Abiadura moteldu beharko dute.
- c) Ahal dela, galtzadaren erdialdetik zirkulatuko dute, fatxadatik gutxienez 2 metroko tartea gorderik.
- d) Oinezkoen aglomerazio-kasuetan, ezin bada oinezkoak aurreratzeko 1,5 metroko tartea gorde, ziklistek bizikletatik jaitsi eta, hura eskutik helduta, oinez segitu beharko dute.

3. Bizitegi-kale hauetan bizikletek zirkulazioko bi noranzkoetan zirkulatu ahalko dute, baldin eta seinaleztapen egokia erabilita berariaz baimentzen bada.

4. Bizitegi-kaleak zutikako seinaleen bidez seinaleztatu eta mugatuko dira (*15.3 artikulua: Bizitegi-kaleak*)

32. artikulua.- Bizikleten zirkulazioa eta mugikortasun murriztuko pertsonen zirkulazioa aulkietan eta trizikloetan, parke eta pasealekuetan barna.

Bizikletek eta mugikortasun murriztuko pertsonen aulkiek zein trizikloek parkeetan eta pasealekuetan barna zirkulatzen ahalko dute, berariaz debekatutako kasuetan izan ezik, honako baldintza hauekin bat:

- a) Oinezkoen lehentasuna errespetatu beharko dute beti.
- b) Neurriko abiaduran zirkulatuko dute, betiere beren abiadura oinezkoenera egokiturik.
- c) Oinezkoak aurreratzeko, gorde beharko dute gutxienez 1,5 metroko tartea, bideak horretarako aukerarik emanez gero.
- d) Oinezkoen aglomerazio-kasuetan, ezin bada oinezkoak aurreratzeko aipatu segurtasun-distantzia hori gorde, ziklistek bizikletatik jaitsi eta, hura eskutik helduta, oinez segitu beharko dute.

33. artikulua.- Segurtasun- eta ikusgarritasun- osagarriak, eta kaskoaren erabilera.

1. Bizikletek txirrina eta argiak edo islatzaileak eduki behar dituzte, indarrean diren legeek ezarritako baldintzekin bat. Betiere, honako hauek bete behar dituzte:

a. Egunez zirkulatzen dutenean, txirrina eduki beharko dute.

b. Gauetz edozein hirigunetan zirkulatzen dutenean, bai eta tunel-seinalea duten tarteeetan edo ikusmen eskaseko egoeretan ere honako hauek eraman beharko dituzte: txirrina, aurreko posizio-argi zuria, atzeko posizio-argi gorria eta atzeko islatzaile gorria, behar bezala homologaturik eta aukera emanik oinezkoek eta gidariek horiek ongi ikus ditzaten.

2. 16 urtetik beherakoek kaskoa erabili behar dute hiri-bideetan, eta ziklistek orok, hirien arteko bideetan.

34. artikulua.- Ziklisten gailuak eta berariazko seinaleztapena.

Udalak baimena ematen ahalko du berariazko gailuak edo seinaleak ezartzeko, ziklisten zirkulazioari begira, haien segurtasuna eta erosotasuna sustatzeko, hala nola honako hauek:

- Bizikleta-bideak, zirkulazio motordunaren kontrako noranzkoan.
- Itxaron-eremu aurreratuak, elkarguneetan.
- Bizikletendako berariazko semaforoak, ibilgailu motordunetarako semaforoen bestelako agindu eta tenporizazioa izan dezaketenak, bizikleten beharrei doitzeko.

35. artikulua.- Salgaien eta pertsonen garraioa.

1. Adinez nagusiek pertsonak eta salgaiak garraiatzen ahalko dituzte bizikletetan eta zikloetan, 35. artikuluko honen 6. atalean deskribatutako baldintzekin bat.

2. Bizikletetan erabiltzen ahalko dira atoiak, erdiatoiak, aulkitxoak eta beste edozein elementu behar bezala homologatuta erabiltzeko, haietan pertsonak edo zamak garraiatze aldera.

3. Pertsonen zein zamen garraioa eta publizitate-zikloen erabilera honako hauek ekidinez egin beharko dira:

- Herrestan eramatea, osorik edo parte batez erortzea, edo modu arriskutsuan zirkulatzea.
- Ibilgailuaren egonkortasuna kolokan jartzea.
- Argien edo ikusizko seinaleen gailuak estaltzea.

4. Atoiek agerian ikustekoak izan behar dute eta eduki atzeko posizio-argi gorria zein atzeko islatzaile gorria.



5. Segurtasunaren hobe beharrez, batez ere bide-elkarguneetan, atoiak edo gurditxoak kolore deigarriko banderatxo bat eraman beharko du bidearen gainerako erabiltzaileak ohartarazteko moduko altueran paraturik.
6. Adingabeak garraiatzeari dagokionez, pertsona bakar batentzat egindako bizikleta eta zikloetan, gidaria adinez nagusia bada, zazpi urtera arteko haur bat ere eraman ahal izango da, betiere, behar bezala homologatutako jarleku osagarri batean edo aulki akoplatu batean. Aulkiak osagarri islatzaileak eduki beharko ditu.³
7. Adingabea, nolana ere, behar bezala homologaturik dagoen kasko babesle batez garraiatu behar da, kaskoa ongi loturik eta buruan doiturik eraman beharko duelarik.
8. Udalak Alkatetzaren dekretu bidez arautzen ahalko du salgaien edota pertsonen garraio komertziala zikloetan, bizikletetan edo mugikortasun pertsonaleko ibilgailuetan.

36. artikulua.- Aparkatzea eta bizikletak aparkatzeko euskarriak.

1. Bizikletak, ahal dela, horretarako berriaz prestatutako tokietan aparkatu behar dira behar bezala loturik. Toki horiek beste zikloen erabiltzaileek ere erabiltzen ahalko dituzte, barne harturik mugikortasun murriztuko ibilgailuenek.
2. Beste zenbait tokitan ere aparkatu eta lotu daitezke, landare-elementuetan eta hiriko jarlekuetan izan ezik, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:
 - Oinezkoen edo ibilgailuen igarotzea ez oztopatzea.
 - Hiri-altzariak ez kaltetzea edo haien funtzionaltasuna ez aldatzea
 - 2 metroko tarte gordetzea gutxienez oinezkoak igarotzeko eremuarekin.
 - Aparkatuta dauden bizikletak eskuratzeko tarte nahikoa gordetzea.

37. artikulua.- Bizikleten erregistroa.

1. Iruñeko Udalak bizikleten erregistro bat sortuko du, eta jendeak borondatez ematen ahalko du izena, bizikleten lapurretak eta galerak prebenitzeko eta haiek errazago bilatzeko.
2. Hamalau urtetik gorakoek izanen dute bizikleta erregistratzeko aukera. Hamalau urtetik beherakoek bizikletak haien gurasoen edo legezko tutoreen izenean inskribatu daitezke.
3. Ibilgailua bizikleten erregistroan izena ematean, titularrak borondatezko segururik izanez gero, datu hori bertan jasotzen ahalko da.

3

38. artikulua.- Bizikletak erretiratzea.

1. Agintari eskudunek bide publikotik erretiratzen ahalko dute bizikleta edo zikloa, horretarako eginbeharra duenak ez badu halakorik egiten, honako kasu hauetan:

- a. Aparkatzeko berariaz prestaturik ez dagoen toki batean 7 egun baino gehiagoz aparkatuta egonez gero.
- b. Bizikleta, zikloa edo horien osagaietako bat abandonatutzat jotzen badira.
- c. Ibilgailua legearekin bat ibilgetu behar denean, hori egiteko toki aproposik ez badago.

2. Honako bizikleta eta ziklo hauek joko dira abandonatutzat, agintari eskudunek erretiratzeari dagokionez: bide publikoan dauden bizikletak eta zikloak, baldin eta gurpilak falta bazaizkio, mugitzea eragozteko moduko narriadurak badituzte edo beren egoera dela-eta argi eta garbi bada abandonaturik daudela.

Udal-agintariek ofizioz gauzatuko dute bizikletak eta zikloak erretiratzeko ekimena, loturarik askatuz eta, halakorik balitz, gastuak haien jabeen kontura doazela.

3. Udalak udal-biltegira eramanen ditu bizikleta eta ziklo abandonatuak.

Erretiratu direnez geroztik hiru hilabete igarota, Udalak ibilgailu horiek erabiltzen ahalko ditu indarreko legeekin bat.



VI. KAPITULUA.- ABIADURA

39. artikulua.- Abiadura mugak.

1. Hiriko bide eta zeharbideetan, oro har, ibilgailuen gehieneko abiadura 50 km/h izanen da, honako kasu hauetan salbu:

- a) Freno-seinaleztapena ez duten ibilgailu bereziak, atoaia dutenak eta motokultoreak edo antzeko makinak: gehienez 25 km/h.
- b) Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak, gainerako ibilgailu bereziak, bizikletak eta ziklomotoreak: gehienez 40 km/h.

2. Aurreko atalean adierazitako mugak jaitsi ahalko dira egoki jotako eremuetan, oinezkoen zirkulazio handia edo bestelako inguruabarrak direla bide.

40 artikulua.- Abiadura inguruabarretara egokitzea.

Gidari orok errespetatu beharko ditu ezarritako abiadura mugak; horrez gain, aintzat hartuko ditu bere baldintza fisiko eta psikoak, hala bidearen nola ibilgailuaren eta haren kargaren ezaugarriak eta egoera, zirkulazio-baldintzak eta giro nahiz eguraldiaren inguruak, eta, oro har, unean-uneko beste edozein inguruabar. Gidariak ibilgailuaren abiadura inguruabar horietara egokitu eta haren ikuseremuaren barruan ibilgailua gelditzeko gai izan beharko du, ager daitekeen edozein oztoporen aurrean.

41 artikulua.- Abiadura moteltzea.

Astiro zirkulatu behar da; eta, beharrezkoa bada, geratu beharko da ibilgailua, inguruabarrek hala agintzen dutenean; bereziki, honako kasu hauetan:

- a) Erabiltzen ari den bidearen zatian oinezkoak edo bizikletak badaude, edo arrazionalki aurreikusi badaiteke horiek bat-batean ager daitezkeela, batez ere adingabeak, adinekoak, itsuak eta ageriki ezinduak badira.
- b) 26. artikuluan bizikleten galtzadaren gaineko zirkulazioari buruz zehaztutakoarekin bat, ibilgailu motordunek egokitu beharko dute bere abiadura bizikleta eta zikloen abiadurara, eta ezinen dituzte ez bizikletak aurreratu, salbu eta artikulua horretan zehazten diren baldintzekin bat, ezta ibilgailu motordunen gidariak bizikleten gidariak jazarri ere.
- c) Bizikletek, zikloek edo ibilgailuek zirkulatzen ahal duten bideetan mugikortasun murriztuko pertsonarik egonez gero, abiadura haienera murriztuko dute.
- d) Zirkulatzean, erabiltzen ari den bidearen zatian animaliarik egonez gero, edo arrazionalki aurreikusi badaiteke horiek bat-batean ager daitezkeela.
- e) Oinezkoendako edo ziklistendako pasabideetara hurbiltzean, semaforo edo zirkulazio-agente bidez erregulaturik ez badaude, bai eta ikastetxeetara eta oinezko asko dauden tokietara hurbiltzean ere.
- f) Geldirik dagoen autobus batera hurbiltzean, aurreikusi badaiteke erabiltzaileak igo edo



jaitsi daitezkeela.

- g) Zirkulatzean zoladura irristakor badago, edo bidearen erabiltzaileei ur, hartxintzar, lohi edo beste edozein elementurekin zipriztindu edo horiek jaurtitzeko arriskua dagoenean.
- h) Biribilguneetara hurbiltzean, lehentasuna ez dugun elkarguneetan, obretan dauden tokietan edo galtzada estutzen denean.
- i) Laino itxia, euri-jasa, elurra, izotza edo hauts- zein ke-lainoa dagoenean.

III. TITULUA.- ZAMALANAK.

42. artikulua.- Arau orokorrak.

1. Bide publikoan egindako zamalantzat joko da salgai bat garraiatzea finka batetik aparkatuta dagoen ibilgailu bateraino, edo alderantziz.

Honako ibilgailu hauek daude baimenduta zamalanetan aritzeko zutikako seinaleen edo seinale etzanen bidez horretarako erreserbatutako guneetan, betiere ezarritako ordutegiaren barruan ari direlarik:

- a) Zama eramateko atoia duten bizikletak eta zikloak edo banaketan aritzeko bestelako ibilgailu txikiak, ohiko trakzio motordunaz besteko trakzioak dituztenak (esku-orgatxoak eta orgatxo elektrikoak zein trakzio-plataformak). Zenbait kale eta eremutan, Udalak xedatzen ahalko du ibilgailu bereziek bakarrik jardun dezaketela zenbait salgai banatzen ordu jakin batzuen barruan, lehentasuna emanaz, betiere, haien ezaugarri teknikoengatik eta propulzio-sistemagatik ingurumenean inpaktu txikiagoa eragin eta bide publikoan toki gutxiago okupatzen duten ibilgailuak erabiltzeari.
- b) Turismoak izan gabe salgaiak garraiatzeko baimena duten ibilgailuak, eta ibilgailuaren dokumentazioan halako definizioaren arabera sailkaturik daudenak edo salgaien garraio-txartela daukatenak.

2. Hiri-bideetan salgaiak banatzeko ibilgailuetarako gehieneko masa baimendua (GMB) 8.000 kg izanen da, Alde Zaharrean eta bizitegi-guneetan izan ezik, non alde horietara sartzeko eta haietan zirkulatzeko berariazko arauetan jasotakoa beteko baita, eta halakorik ez balitz, 5.500 kg-koa izanen baita; kasu bakoitzean baimendutakoa baino masa handiagoa duten ibilgailu guztiek udal-baimena eskuratu beharko dute, jarduera horiek egin ahal izateko.

3. Inolaz ere ez daiteke oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragotzi edo oztopatu, ez eta atari, saltoki edo baimendutako pasabideen sarbideak ere. Horretarako, oinezko- eta bizitegi-kaleetan, gutxienez 1,5 metroko tartea utziko da beti ibilgailuaren eta fatxadaren artean, eta zamalanetan garraiatzen diren salgai, material eta objektuak ez dira lurrean utziko, baizik eta zuzenean lekualdatuko ibilgailutik jomuga den tokira, edo alderantziz.

4. Lan horiek egiteko behar adina langile arituko dira behar besteko zuhurtziaz jokatuta, zamalanak azkar, arriskurik sortu gabe eta zarata gutxirekin egiteko. Hirugarrenei eragozpenik eraginez gero, lan horiek bertan behera utziko dira eragozpenak konpontzeko neurriak hartu



arte.

5. Ibilgailuak espaloiarekiko paraleloan lerrokatu beharko dira, ertzaren kontra, aitzinaldea zirkulazio orokorraren noranzkoan, salbu eta bateriako aparkalekuetan, kasu horretan ibilgailuak ezin izanen baitira horretarako seinaleztatutako eremutik kanpora atera.

43. artikulua.- Denbora-tarteak.

1. Zamalanetarako erreserbatutako gunetan ezin izanen da aparkatu lan horiek egiteko behar den denbora baino luzeago, eta inoiz ez 30 minutu baino gehiago. Denbora-muga hori errespetatzen dela zainduko da, halako gunetan errotazioa egon dadin, ahalik eta aprobetxamendurik handiena edukitzearren.

2. Zamalanetarako erreserbatutako ordutegitik kanpo, seinaleztatutako gunek non egon eta eremu horretan aparkatzeko arauetara egokituko dira.

44. artikulua.- Kasu bereziak.

1. Udalak aldi baterako aparkatzeko erreserbak ematen ahal izanen ditu lan jakin batzuk egite aldera (etxe-aldaketako garraioak, fuelaren hornidura, lanak, etab.), betiere alde aurretik baimena eskatuta –jarduera hasi baino 24 ordu lehenago gutxienez– eta dagokion aprobetxamendu-tasa ordainduta.

2. Eskabidean honako hauek adierazi beharko dira: enpresa eskatzailearen izena, matrikula, ibilgailuaren pisua eta neurriak, jatorria, zamalanak egiteko toki zehatza eta horiek burutzeko kalkulatu den denbora; Udaltzaingoa iritiz, zamalanak emandako baimenera egokitzen ez badira edo hura zailago egiten duten gertakiririk jasoz gero, zamalanak bertan behera geratuko dira berehala.

3. Kale edo gune batzuetan, Udalak xedatu ahalko du ibilgailu-mota bereziak erabil daitezela salgai batzuen banaketa egiteko, ordutegi zehatz batzuetan, betiere lehentasuna emanen zaielarik haien ezaugarri teknikoak eta propulsiio-sistema direla bide, ingurumenean inpaktu gutxien (isurpenak eta zarata) eragin eta bide publikoan espazio gutxien okupatzen dutenei. Aipatutako kale edo guneen eta baimendutako ibilgailu-moten zehaztapena, aldaketa edo zabalpena Alkatetzak horretarako emandako dekretu bidez ezarriko da.



IV. TITULUA.- GELDIALDIA ETA APARKATZEA.

I. KAPITULUA.- DESGAITASUNEN BAT DUTENENDAKO APARKATZE-TXARTELAK, ERRESERBATUAK ETA APARKATZEA.

45 artikulua.- Desgaitasunen bat dutenendako aparkatze-txartela, erreserbatuak eta aparkatzea ⁽⁴⁾.

1. Txartelak emateko prozedura eta betekizunak.

Txartela interesdunak aurrez eskaturik eginen da. Eskabidean, datu pertsonalak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa –edukiz gero– adieraziko dira. Harekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztuko dira, pertsona fisikoen kasuan:

- argazki bat, nortasun-agirirako modukoa.
- Nortasun agiriaren kopia.
- Ziurtagiria, desgaitu-izaera egiaztatzekoa.

– Ziurtagiriak, desgaitasun-maila aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II eranskinarekin bat mugikortasun murriztua izatea egiaztatzeko. Eranskinaren baremoaren arabera, interesdunak A, B edo C ataletan deskribatutako egoeraren batean egon behar du, edo gutxienez 7 puntu lortu D, E, F, G eta H ataletan eskuratutako puntuazioen batuketan.

Txartela desgaitasun-maila kalifikatu eta aintzatesteko ardura duten ekipo multiprofesionalek emanen dute. ONCE erakundearen organo eskudunak emandako ziurtagiriak ere baliozkoak izanen dira, betiere interesduna horren kidea dela egiaztatzen bada eta adierazitako ikusmen-zolitasun zein ikusmen-eremuaren baldintzak betetzen badira.

- 0,1eko edo gutxiagoko ikusmen-zolitasuna edukitzea zuzenketaz ikusmen hoberena duen begian edo 10 gradura edo gutxiagora murriztutako ikusmen-eremua edukitzea. Txartela desgaitasun-maila kalifikatu eta aintzatesteko ardura duten ekipo multiprofesionalek emanen dute.

Behin-behineko txartela eskatzen duenari datu pertsonalak, argazki bat eta nortasun agiriaren kopia aurkezteko eskatuko zaio. Halaber, osasun-zerbitzu publikoetako medikuek emandako ziurtagiria eskatuko da, zeina eskatzaileak helbidearen arabera dituen osasun-zerbitzuen ikuskapenaz baliozkotu beharko baita.

1056/2014 Errege Dekretuaren 3.2 artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoek edo juridikoek eskatzen badute txartela, ziurtatu beharko dute egiaztagiriri bitartez ibilgailua edo ibilgailuak erabiltzen direla bakarrik desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko – autonomia pertsonala sustatzeko zein menpekotasuna artatzeko gizarte-zerbitzuak emate aldera–, betiere abenduaren 14ko Autonomia pertsonala sustatzeari eta

⁴ Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2015eko urriaren 1ean onetsitako aldaketek eragindako berridazketa.



mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak aipatzen duenarekin bat, bai eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta horien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) aipatzen dituen gizarte zerbitzuez bezainbatean. Txarteletan beti agertuko da ibilgailuaren matrikula.

2. Behin- behineko aparkatze-txartela.

Gizatasun-zioak direla bide, salbuespenez ematen ahalko zaie behin-behineko aparkatze-txartela mugikortasuna murrizturik dutenei, nahiz eta hori ez den ofizialki baietsi.

Txartel horrek, gehienez ere urtebeteko iraupena izanen du, eta beste hainbesteko aldiaz luzatzen ahalko da, betiere hori emateko baldintzek bere horretan segitzen badute.

Interesdunak osasun-zerbitzu publikoetako medikuek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, eskatzailearen helbidearen arabera osasun-zerbitzuen ikuskapenak baliozkotu beharko duena.

3. Aparkatze-txartela zenbait eremutarako.

Horretarako beharra egiaztatzen dutenei zenbait eremutan desgaitasuna dutenei erreserbatutako tokietan aparkatzeko txartela ematen ahalko zaie, adibidez ospitaleetan, osasun-etxeetan eta abarretan.

Txartel horien balio-epea behar zehatz horren arabera izanen da.

4. Erabilera-baldintzak.

Mugikortasun zioengatik pertsona fisikoei emandako aparkatze-txartelak –bost urtetarako emanak, behin-behinekoak edo zenbait eremutarako emanak– pertsonalak eta besterenezinak dira, eta soilik haien titularrak izan daitezke txartelaren onuradunak, halako moduz non bakarrik erabiltzen ahalko baitira titularrak gidatzen duenean ibilgailu bat, edo bertan garraiatzen dutenean.

1056/2014 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoan oinarriturik emandako txartelak bakarrik erabiltzen ahalko dira ibilgailuak benetan garraiatzen dituenen artikuluko honek aipatzen dituen pertsonak.

Txartela jasotzeko eskubidea eman zieten baldintzetan aldaketarik egonez gero, titularrek horren berri eman beharko dute eta horretarako eskubidea galduz gero, entregatu beharko dute txartela.

Txartela –beti jatorrizko agiria delarik– ibilgailuaren aurreko aldean, aginte-panelean edo haizetakoan, jarri beharko da, kanpotik ongi ikusi eta irakurtzeko moduan.

Txartela erabiltzean iruzur eginez gero, hura baliogabetu daiteke, ezertan eragotzi gabe horri dagozkion zehapenak.

5. Balio-epea.



Pertsona fisikoei emandako aparkatze-txartelek, behin-behinekoak eta zenbait eremutan erabiltzekoak izan ezik, bost urteko balio-epea edukiko dute, salbu eta txartela edukitzeko eskubidea ematen duen desgaitasun-graduaren balorazioa epe laburragoan berraztertzea bada.

Txartela berritzeko eskaerak haren baliotasuna luzatzen du prozeduraren gainean ebatzi arte.

Berritzeko eskaera egiten bada txartelak indarraldia noiz galdu eta hurrengo laurogeita hamar egun naturaleko epearen barruan, ulertuko da indarraldiak iraunen duela ebatzi arte.

Txartela berritzeko, interesdunak argazki bat aurkeztu beharko du.

6. Titularren eskubideak.

Txartelaren titularrek honako eskubide hauek edukiko dituzte, noiz eta txartela ikusteko moduan jartzen badute ibilgailuaren barruan:

- Desgaitasuna dutenei erreserbatutako aparkatze-tokietan aparkatzea.
- Aparkatze-tokia erreserbatzea, halakorik eskatu eta horretarako beharra justifikatu ondoren, etxebizitzaren edo lantokiaren inguruan.
- Aparkatze arautuko eremuetan aparkatzea, tasarik ordaindu gabe.
- Bizilagunendako murriztutako eremuetara sartzea, betiere bidaiaren jatorria edo helmuga eremu horren barruan bada.
- Zamalanetarako erreserbatutako gunetan gelditu eta aparkatzea.
 - Bidearen edozein tokitan gelditzea, justifikatutako zioengatik eta ezinbesteko aldirako, betiere oinezkoei eta zirkulazioari eragozpenik eragiten ez bazaie eta agintaritzako agenteen jarraibideekin bat.

Desgaitasuna duten pertsonen aparkatze-txartelaz ezin izanen da aparkatu bizitegi-eremuetan, oinezkoen pasabideetan, Legeak gelditzea debekatzen duen tokietan, ibietan, larrialdiko irteeretan, segurtasun publikoengatik zedarritutako eremuetan eta zirkulazio-erriak murrizten dituzten gunetan.

46 artikulua.- Aparkatze-toki erreserbatuen seinaleztapena. ⁽⁵⁾

Desgaitasuna duten pertsonendako erreserbatutako aparkatze-tokiak seinale etzanen eta zutikakoen bidez seinaleztatuko dira, eta seinaleetan irisgarritasunaren nazioarteko ikurra sartuko da.

⁵ Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2015eko urriaren 1ean onetsitako aldaketek eragindako berridazketa.

47. artikulua. Beste aparkatze-toki erreserbatu batzuk.

1. Administrazio publikoek eta beste zenbait organismo pribatu zein publikok toki erreserbatuak eskatzen ahalko dituzte beren egoitzetatik hurbil aparkatzeko.

Espazio-erreserbak, modu murriztuenean emanen dira, eta betiere hala egitea trafikoarendako edo ibilgailuen joan-etorriarendako mesedegarri, eragozpenak kentzeko baliagarri edo nolana ere interes publikoarendako onuragarri gertatzen den neurrian.

Udalak bere aldetik erabakitzen dituen baldintzak paratzen ahal ditu ematen den lizentziari dagokionez, eta emate hori berri edo bere aprobetxamendua aldatzen ahalko da noiznahi eta kalte-ordainik izan gabe.

2. Udal-organo eskudunak, eskaera eta beste zenbat alderdi, hala nola eremuko zirkulazioa eta aparkatze-tokiak, aztertu eta gero, erreserba baimendu edo ukatuko du, eta zehaztuko du hura eskatu duten ibilgailuetatik zeinek erabil dezaketen. Halaber, Udaleko edo beste administrazioetako ibilgailuek ere erabiltzen ahalko dute erreserba. Ibilgailu bakoitzeko txartel bat emanen da, eta hura agerian paratu beharko dute erreserba erabiltzen duten aldietan.

3. Eskaera eta dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, espazio-erreserben lizentzia eskatzeko:

- Eskabide bat, eskaeraren xedea zehaztuta eta hura zer jardueratarako eskatu eta horren titularrak sinatuta.
- Memoria bat, luze azalduta eskatutako erreserbaren beharraren zioak eta zirkulazioari oro har zein interes publikoari dakarzkion onurak.
- Plano bat, eskatzen den erreserba gunea ahalik eta zehatzen zedarritu eta seinaleztaturik.

4. Erreserba-lizentzia hauek, oro har, eskatu ahala emanen dira.

Erreserba hauek dagokien tasa sortuko dute, Iruñeko Udalaren dagokion Ordenantza Fiskalean jasotakoaren arabera.



II. KAPITULUA.- PASABIDE-LIZENTZIAK.

48. artikulua.- Pasabide-lizentziaren definizioa.

1. Bi gurgil baino gehiagoko ibilgailuak erabilera pribatuko lokal edo eremuetara pasatzeko, espaloietan edo oinezkoen erabilera publikoko eremuetan barna, beharrezkoa izanen da pasatzeko udal-lizentzia edukitzea (laburbilduz, pasabide-lizentzia).

2. Pasabide-lizentzia hau nahitaezkoa da aitzineko paragrafoan adierazitako oinarritzako kasuan, nahiz eta hura baliatzeko ez den eskatzen pasagunean edo parean aparkatzeko debekua, bai trafiko arauak sektorean gelditzea edo aparkatzea debekatzen dutelako bai erabiltzen ez delako, edo beste arrazoi batzuegatik.

49. artikulua.- Pasabide-lizentziaren baldintzak.

1. Lizentzia bakar bat, gehieneko luzeraz: pasatzeko lizentzia bakar bat ematen ahalko da lokal bakoitzeko, lokala izanik unitate fisiko bat, fabrika-obra beste tarte batzuen bidez guttiz eta modu iraunkorrean isolatua.

Orokorrean, ematen den lizentzia, luzeraz, ez da lokalean sartzeko atearen zabaleraren %20 baino gehiago izanen, eta gehienez ere 6 metro izanen ditu, alboetako piezetako errematea barne hartu gabe.

Gainera, lizentzia honek izaera murriztailea duenez, interes publikoak hartaratuta, ahaleginak eginen dira elkarrengandik hurbil edo ondoan diren lokalak (bereziki titular berarenak badira) banan-banan ez izateko lizentzia horien onuradun.

2. Nolanahi ere, salbuespenez eta interes publikoak hartaraturik, handitzen ahalko dira arestiko mugak, hala nola ibilgailuak gordetzeko lokaletan sartzeko pasaguneetan, ibilgailu kopuru handia gordetzeko edukiera badute, eta orobat beste kasu bakan eta arrazoituetan.

3. Orokorrean, pasabide-lizentziak egoera hauetan baizik ez dira emanen:

- a) Ibilgailuak gordetzeko lokalak: lokal edo espazioaren edukierak eta benetako erabilerak turismo motako gutxienez bost ibilgailu eta garraio motako hiru ibilgailu hartzen dituztenean.

Halaber, lokal horiek espazio libre bat edukiko dute bakarrik ibilgailu horiek erabiltzekoa, zeina ez baita izanen 100 m²-tik beherakoa.

- b) Oro har merkataritzakoak edo industriakoak diren lokaletan, honako baldintza hauek betetzen badira:

- 1- Jardueraren izaera nagusia dela eta, behar-beharrezkoa bada bertatik ibilgailuak igarotzea.

- 2- Gutxienez 40 m² libre duen espazio bat egotea etengabe ibilgailu horietarako edo zamalanetarako.



- 3- Ibilgailuak konpontzeko lantegien kasuan, bakarrik galdatuko da 25 m²-ko azalera libre gordetzea.
- c) Familia bakarreko etxebizitzetan, Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorrak araututako aldeetan, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:
 - 1- Eremuak familia bakarreko etxebizitzetarako antolamendua izatea, eta gisa hartara eraikia.
 - 2.- Eremu publikoan halako jarduketa batzuk egiteko murriztapen nabarmenik ez ekartzea.
 - 3.- Familia bakarreko etxebizitzaren eremu pribatiboaren barnean aparkatzeko tokia izatea.

50. artikulua.- Ordutegia.

Lizentziak ordutegi mugatuan edo etengabe erabiltzeko izan daitezke.

1. Ordutegi mugatuan pasatzeko lizentziek aukera emanen dute ibilgailuak pasatzeko gehienez ere hamar orduz egunean, jaiegunetan izan ezik, haietarako berariazko akordiorik salbu. Kasu bakoitzeko ordutegia interesedunak eskatuko du. Ordutegia zatitua izan daiteke, establezimenduaren merkataritza-ordutegiarekin bat.

Ordutegi mugatuan erabiltzeko pasabide-lizentzia hauek oro har aplikatzekoak izanen dira merkataritza- eta industria-establezimenduen kasuan, ibilgailuak bertan egoteko garajeak ez direlarik.

2. Etengabeko pasabide-lizentziak hagitz modu murriztuan emanen dira, eta nahitaezko kasuetan, hala nola larrialdiko zerbitzuetan edo Udalaren aburuz halakorik behar duten garajeko jarduerak egiteko ibilgailuen kasuan.

51. artikulua.- Seinaleztapena.

Pasabideetan seinaleak zutik nahiz etzanik paratu beharko dira, artikulua honetan jasotako gisan.

Zutik, erregelamenduzko debeku-plakak jarriko dira, lokalera edo gune pribatura sartzeko bi aldeetan, non jasota agertuko baita hala ordutegia nola bertan aparkatzeko debeku etengabea.

Baimendutako pasabidearen zabalera kontuan harturik gordeko da xaflen arteko tartea, \pm % 20ko tolerantziaz. Plaken beheko aldea zorutik 1,50etik 2 metro bitarteko garaierara egonen da, Udaleko zerbitzu teknikoek salbuesenez besterik baimentzen dutenetan izan ezik.

Xaflak tasa baten truke Udalak ematen duen eredu ofizialekoa izan behar du, eta guztiek eduki edo eraman behar dute atxikirik beste xafla bat nagusiaren azpian, pasabide bakoitzari dagokion espedientearen zenbakia edo matrikula bertan adierazita.



Gainera, pasabide-lizentzia ordutegi jakin baterako denean, hori erraz ikusteko maneran agertuko da seinaleetan.

Seinale etzanak paratzeko, pasabidea edo zintarriko beheratzea horiz eta beltzez pintatuko da, kolore bakoitzari 50 zentimetroko zabalera emanen zaiola. Bestalde, galtzadan pasabidea mugatzeko bi marra hori elkarzut pintatuko dira, 2 metro luze eta 15 zentimetro zabal izanen direnak, kolore hori eta zabalera bereko marra hautsi batek baturik, edo marra eten batek, aparkatzeko tokirik ez dagoenean.

Pasabide-lizentzia berrien kasuan eta daudenetan aldaketak egiteko, argi-gailu dirdiratu bat paratuko da, behar bezain baxu kokaturik oinezkoek ikusteko moduan, haiei garajeko ateen funtzionamenduaz ohartarazteko. Udalak onetsi beharko du gailua, eta, hortaz, aurrez aurkeztu beharko zaio.

Seinaleztapena okerra izanez gero, deskribatutako elementuren bat falta bada, edo seinaleztapena ez bada behar bezala mantentzen, pasabide-lizentziak indarra galduko du, eta berekin ekarriko du ordenantza honen kontrako arau-hauste larria.

52 artikulua.- Zintarria beheratzea edo pasabidea.

1. Espaloiko zintarria edo gisakoa ("pasabidea", laburki) aldatzean edo hura beheratzean, bere hartan utziko da sestra ofiziala, fatxadak eta espaloiak bat egiten duten gunean zehazten den fatxada lerroan. Gainera, gaur egun hirian ohi den eredu edo diseinuari egokituko zaio, baita zintarriaren gainerako aldean eta eremu horretako espaloietan erabili diren materialei ere.
2. Zintarria beheratzea galdatzen ahalko da pasabide-lizentzia ematen den kasu guztietan. Salbuespenez, kasu berezietan, ahalko du bakarrik Udalak baldintza hori ezabatu.

53. artikulua.- Pasabideetarako lizentziak ukitutako eremuan aparkatzea.

Debeku da pasatzeko lizentziak ukitutako eremuan aparkatzea. Debekua lizentziaren titularrari ere dagokio. Honako kasu hauetan bakarrik tolera daiteke aparkatzea:

1. Gidaria ibilgailuaren barnean egon eta berehala kentzen badu.
2. Ibilgailuak konpontzen edo antzeko zereginean jarduten duten merkataritza- edo industria-erabilerako lokalei emandako pasabide-lizentzien kasuan, baimena emanen da da lokalera sartzeko zain ibilgailuak pasabidean aparkatzeko, betiere lokalaren jendaurreko ordutegiaren barruan.
3. Seinaleak behar bezala paraturik eta zaindurik ez badaude arreakusita dagoen maneran, ez dira salatuko ez kenduko pasabidean aparkatzen diren ibilgailuak; pasabide-lizentzia baliogabetzeko arrazoia izan daiteke hori.

54. artikulua.- Fidantza.

1. Pasabide-lizentzia eskatzearekin batera, 1.500,00 euroko bermea ordaindu beharko da, erantzun ahal izateko zoladuran egin daitezkeen kalteengatik, seinaleztapen-diskoen



itzulerarengatik eta zintarrian egin beharreko konpontze-lanengatik.

2. Fidantzaren zenbatekoa urtez urte handituko da, Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizearen arabera, eta hori urtero egin behar da, aurreko paragrafoan aipatu bermea benetan ziurtatzeagatik.

3. Pasabide-lizentziarik eman ezean, Udalak berehala itzuli beharko dio bermea eskatzaileari.

55. artikulua.- Erantzukizuna.

1. Pasabide-lizentziaren titularrak erantzunen du zoladuran edo zintarrian kalterik izanez gero, berari dagokio zintarrian beheramendua egitea, pasabidea kentzea eta zintarria birjartzea; orobat, zutikako seinaleak nahiz etzanak (pinturak zintarrian eta galtzadan) paratzea zein horiek mantentzea ere berari dagokio.

Aurrekoa horrela, Udalak noiznahi eskatzen ahalko du pasabidea konpontzeko, sendotzeko edo nahi dena moldatzeko, hala lizentzia eman baino lehenagoko baldintza gisara nola hura eman eta geroko edozein unetan.

2. Erantzukizun subsidiarioa. Aitzineko kasuetan, lokalaren jabea ere erantzule subsidiarioa izanen da, pasabide-lizentziaren titularra beste bat bada.

3. Ordezko betearazpena. Azken batean, ez lizentziaren titularrak ez lokalaren jabeak behar diren obrarik egin ezean, Udalak ordezko betearazpenari heltzen ahalko dio zuzenean fidantzaren kargura, eta halakorik ezean edo hura nahikorik ez bada, zuzenean ordainaraziko dio erantzuleari, haren borondatez edo premiamendu bidez. Ordezko betearazpenaren ordez, isun hertsatzaileak paratzen ahalko dira.

Halaber, edozein arrazoi dela-eta edo lizentziaren gaineko eraginkortasun-baldintzak ez betetzeagatik pasabide-lizentzia bertan behera geratuz gero, udal-zerbitzuek kendu edo baliogabetu ahalko dituzte seinaleztapen-diskoak eta zintarriko pintura.

56. artikulua.- Eskabidea eta dokumentazioa.

Pasabide-baimenak eredu ofizialeko eskabidean eskatuko dira. Pasabideetarako eskabideak irekitzeko edo lehen aldiz erabiltzeko lizentziaren eskaerarekin batean aurkeztzen ahalko dira, pasabidea eskatzen ari den kasuaren arabera. Pasabide-lizentziarako eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

- a) Pasabidea zein lokaletarako eskatzen den eta haren erabilera jaso beharko da. Horren berri emateko, irekiera-lizentziaren kopia aurkeztuko da, edo hura eskatzeko aurkeztutako eskabidearena, tramitea aldi berean egiten bada.
- b) Eraikinaren edo eremuaren kokalekuaren argazkia eta planoak, 1/100etik 1/200erainoko eskalan; hartan zehaztuko da zein den erabiltzen dena eta zein diren pasabideari eragiten dioten hiri-elementuak (espaloiak, kutxetak, kale argiak, ibilgailuak aparkatzeko eremuak, autobus geralekuak, edukiontziak etab.).
- c) Lokalaren planoak, banaketa barne, honako hauek bereziki seinaleztatuta: ibilgailuendako eremua, sarbideak, ibilgailuetarako korridoreak, eta horien ezaugarriak eta azalerak.



d) Beste xederen bat duten negozio-lokalak direnean, txosten labur bat erantsiko da, hartan gauzatzen den jarduerari buruzkoa, zehazturik batezbesteko kalkulu batean zenbat ibilgailu sartu eta ateratzen diren handik egunean.

57. artikulua.- Baimena.

1. Udal organo eskudunak, eskabidea aurkeztu dela ikusita, ebazpena emanen du, behar den tenorean, pasabide-lizentzia emateko.
2. Eskaera egin bada irekitzeko edo lehen aldiz erabiltzeko lizentziarekin batera, edo horiek oraindik eman gabe daudenean, pasabide-lizentzia emanen da beste horiek eskuratzen badira. Halakoetan, ez dira plakak emanen irekitzeko edo lehen aldiz erabiltzeko lizentzia lortzen ez den bitartean.
3. Lizentzia hauek eskatu ahala hautazkoan emanen ditu Udalak, ezertan eragotzi gabe ordenantza honek adierazten ahal dituela hura ukatu edo onartzeko kasu zehatzak.

58. artikulua.- Pasabide-lizentziaren iraungipena.

Hona baimena iraungitzeko arrazoiak:

- a) Titularrak uko egitea edo baja egitea.
- b) Udalak ezeztatzea, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 181.3 artikuluan aurreikusten diren arrazoiengatik.
- c) Borondatezko epean ez ordaintzea pasabideari dagozkion tasak.

59. artikulua.- Pasabide-lizentziaren iraungipenak sortutako betebeharrak.

Pasabide-lizentzia iraungitzeak betebeharrak hauek ekarriko dizkio ordura arteko titularrari:

- a) Seinaleztapen-diskoak itzultzeko eta zintarria seinalezatzeko pintura kentzeko betebeharra.
- b) Zoladura eta zintarria lehengoratzea.

60. artikulua.- Fidantza itzultzea.

1. Aurreko paragrafoan aipatu betebeharrak beterik, Udalak bermea itzuliko du.
2. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, Udalak ordezkotako betearazpenari helduko dio, 55. artikuluan 3. atalean aurreikusi moduan.

61. artikulua.- Debeku orokorrak.

Berariaz daude debekaturik honako hauek:



1. Edozein motatako ibilgailuei sarbidea edo zintarrietako igoera errazteko asmoz, gailu finko edo mugikorrek paratzea erabilera publikoko bide edo eremuetan; halako moduz non bakarrik onartuko baita bidezko kasuetan pasabidea egitea edo zintarria beheratzea, ordenantza honen baldintzen arabera.
2. Pintura, errotulu, seinale edo adierazpen mota guztiak, grafikoak izan edo bestelakoak izan, baldin eta tokia erreserbatzeko nahiz pasatzeko lizentziarik izan gabe, aipatu lizentziek aparkatzeko ezartzen dituzten muga-seinaleak ordeztu nahi badituzte edo mugapen horien gainean oker egitera bultzatzen badute.
3. Erabiltzeari utzitako ibilgailuak, gurdiak edo bestelakoak uztea lokalen sarreraren parean edo inguruetan, aitzineko atalean zehazten den asmo berarekin.

Horietan guztietan, udal-zerbitzuek eraman, kendu edo ezabatzen ahal dituzte debekaturiko lanabes, seinale eta gainerakoak, alde zuzenetik errekerimendurik egin beharrik izan gabe, eta horiek udal-biltegian gordetik. Eragindako gastuak horiek paratzearen erantzulearen bizkar geldituko dira, ezertan eragotzi gabe zehapenak ere ezar daitezkeela.



III. KAPITULUA.- GELDIALDIAK ETA APARKATZEAK.

62. artikulua.- Arau orokorrak.

1. Udal-administrazioari dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan, jabetza pribatukoak izanik ere, aparkatzearen eta zirkulazioaren antolamendua baimentzea.

Horren ondorioz, ez da zirkulazioa mozten ahal, ezta inolako seinalerik edo adierazlerik paratzen ahal ere, halako baimenik gabe.

2. Gelditu eta aparkatzean ibilgailuak ez du ez zirkulazioa ez oinezkoen igarotzea tratatuko –barne hartuta haien sarrera eta irteera eraikinetatik–, ezta arriskurik sortuko ere bidearen gainerako erabiltzaileei; zainduko da bereziki ibilgailua non uzten den eta begiratuko, gidaria kanpoan delarik, mugitzen has ez dadin.

Aparkatzeko uzten den tokia zoladuran mugaturik dagoenean, markaturiko esparruaren barnean aparkatu beharko da.

Aparkatu behar da gainerako erabiltzaileei sartu eta ateratzeko maniobrak egiten uzteko eta gelditzen den espazioa ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran.

3. Gelditzea da jendea hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko, ibilgailua 2 minutu baino gutxiagoz ibilgetzea, gidaria ibilgailutik atera gabe. Ez da gelditzetzat hartuko zirkulazioaren beharrak direla eta halabeharrez edo une batez geratzea.

4. Galtzadan geldituz gero, ertzetik ahalik eta hurbilen kokatuko da ibilgailua.

5. Auto-taxiak eta alokatzen diren bestelako ibilgailu arinak udal-administrazioak erreserbatzen dituen tokietan eta berak dioen gisan aparkatuko dira; gainerakoan, ordenantza honetan orokorrean ezartzen diren arauak hertsiki lotuta aparkatuko dira.

Auto-taxiak erabiltzaileak eskatzen duen tokian gelditzen ahalko dira bezeroak hartu eta uzte aldera, betiere zirkulazioari trabarik egiten ez badiote.

6. Autobusak, hala hiriko lineetakoak nola hiri artekoak, administrazio eskudunak espresuki baimentzen dituen geralekuetan baizik ez dira geldituko bidaiariak hartu edo uzteko.

7. Horrez gain, hiri-garraio kolektiboko zerbitzu publikoko autobusak egoten ahalko dira ezartzen diren goiburuetakoko geralekuetan eta doitzekoetan.

Iruñerrian hiri-garraioko zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza –Iruñerriko Mankomunitateak onetsia– aldatzen duen Testu bateginak arautuko du hiri-garraioa.

8. Eskola-garraioa eta haren geralekuak 443/2001 Errege Dekretuan xedatutakoak arautuko ditu.

9. Aparkatzea da ibilgailu bat bi minutu baino gehiagoan geratzea, betiere zirkulazioaren beharrak eraginez ez bada.

10. Gidariekin ezin izanen dute ibilgailua geldirik eta aparkaturik utzi motorra pizturik dagoela,



ibilgailu barnean gelditzen ez badira.

11. Gidariak hogeitazentimetro baino gutxiagoko tartea utzi beharko dute espaloia- ren zintarritik ibilgailuaren gurpilen kanpo aldera bitarte.

Beste erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran aparkatuko da.

12. Udal-administrazioak aparkatze mugatuko araubidea ezartzen ahalko du eremu jakin batzuetan, doakoa nahiz ordainduzkoa, parkimetroen edo beste edozein sistemaren bidez arautua, zirkulazioa antolatzeko edo hautatzeko, edo aparkatzeko tokien banaketa bidezkoa bermatzeko.

13. Iruñeko Udaltzaingoa- ren burutzak baimen-txartelak ematen ahalko ditu, ibilgailu jakin batzuk aparkatu daitez- en, betiere Iruñeko Udalaren organo eskudunak horiek emateko onetsitako irizpideekin bat.

Aparkatzeko baimen-txartelak behar ez bezala erabiltzeak berekin ekartzen ahal du horiek aldi baterako edo behin betiko errebotatzea, ezertan eragotzi gabe legez dagozkion zehapenak ezartzea.

63. artikulua.- Autobusak, kamioiak, atoiak eta karabanak.

1. Debeku da udal-mugarteko bide guztietan 5.000 kg-tik goitiko GPB duten ibilgailuak aparkatzea, zamalanetan aritzeko izan ezik.

2. Debeku da 3.500 kg-tik goitiko GPB duten kamioiak ibiltzea eta aparkatzea bizitegi- eremuetan eta oro har Alde Zaharrean, salbu eta gune horietarako berariazko arauketak beste gehieneko masa baimendu bat ezartzen badu, edo horretarako berariaz baimena badute.

3. Debeku da 21 bidaiari baino gehiagorendako tokia duten autobusak udal-mugarteko bide guztietan aparkatzea.

4. Debeku horiek ez dira beteko behar bezala justifikaturiko salbuespen-kasuetan, betiere, alde- z aurretik agintari eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

5. Debeku da karabanak, atoiak eta erdiatoiak aparkatzea herrestan daramatzaten ibilgailutik askaturik, Udaleko organo eskudunek baimena ematen duenean izan ezik.

6. Modu generikoan, autokarabanak aparkatuko dira ilaran aparkatzea uzten den eremuetan. Bateria- n, berriz, bakarrik aparkatzen ahalko dira haien luze-zabalak aparkatzeko tokia baino gehiago ez badira eta galtzadan edo espaloian berrogeita hamar zentimetro baino gehiago sartzen ez badira.

7. Orokorrean, debeku da karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal- mugartearen barrenean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan, betiere horietan osasungarritasuna eta higiena bermatzeko bezainbat bitarteko izan beharko dutelarik.

64. artikulua.- Geldialdiak.



Honelako kasu eta tokietan debeku da gelditzea:

- a) Babeslekuetan, irlatxoetan, erdibitzaileetan, oinezkoen eremuetan eta zirkulazioa bideratzen duten gainerako elementuetan.
- b) Ibilgailuendako eraikinetako sarrera-irteeretan, dagokien pasabide-seinalea dutenetan.
- c) Espaloi, pasealeku eta oinezkoak ibiltzeko gainerako tokien gainean.
- d) Behar bezala seinalatutako BUS, eskola garraio eta larrialdiko zerbitzuen geralekuetan.
- e) Taxi geralekuetan eta salgaien zamalanetarako erreserbatutako tokietan.
- f) Gelditzeak gidariei ikusi beharreko trafiko seinaleak ikustea eragozten dien tokietan.
- g) Bidaiarien garraio kolektiboko ibilgailuak Udal Administrazioak bidaiariak utzi edo hartzeko erreserbatu edo baimenduriko eremuetatik kanpora gelditzen direnean.
- h) Garraio publikoak edo bizikletek bakarrik erabiltzeko erreserbatutako erreietan.
- i) Jendeari higiezinetera sartu edo handik ateratzea eragozten zaionean.
- j) Zubietan, tuneletan eta gainetiko pasabideen azpian, non ez dagoen kontrako seinalerik.
- k) Semaforoek araututako elkargune batean, hori arautzen duten semafoerei eusteko zutoinek mugaturiko eremuaren barnean, seinaleek kontrakoa adierazten dutenean izan ezik.
- l) Zirkulazioaren bi noranzko bideetan, norantzaren ezker aldean gelditzen bada.
- m) Bigarren ilaran.
- n) Galtzadaren erdian, espresuki baimendurik egon ezean.
- o) Desgaitasuna dutenek eta beste inork ez erabiltzeko toki seinalatuetan.
- p) Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa arriskuan jartzen edo larriki trabatzen duten beste edozein tokitan.
- q) Desgaituendako aparkatze-txartela edukita bakarrik egin daitekeen leku batean gelditzea, baldin eta txartela behar ez bezala erabiltzen bada (paragrafo hau gehitu da urriaren 1eko Desgaitasunari buruzko ordenantzaren aldaketaren ondorioz).

65. artikulua.- Aparkatzea.

1. Honelako kasu eta tokietan debeku da aparkatzea:

- a) Gelditzea debekatzeko zutikako seinalea edo etzana duten tokietan.
- b) Espaloi, pasealeku eta oinezkoak ibiltzeko gainerako tokien gainean. Bizikletak debeku horretatik salbuetsita daude, izan ere, toki horietan aparkatzen ahalko dira ordenantza honetan jasotako kasu eta maneretan.



- c) Behar bezala seinaleztatutako Bus, taxi, eskola garraio, erakunde ofizial eta larrialdiko zerbitzuen geralekuetan.
- d) Zamalanetarako erreserbaturiko tokietan, dagokien seinaleetan ezarritako erreserba-ordutegien barnean.
- e) Aparkatzeak gidariei ikusi beharreko trafiko seinaleak ikustea eragozten dien tokietan
- f) Jendeari higiezinetara sartu edo handik ateratzea eragozten zaionean.
- g) Bigarren ilaran, edozein kasutan.
- h) Edukiontzien ondoan, zabor bilketa galarazi edo oztopatzen bada.
- i) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ateratzea eragozten edo oztopatzen bada.
- j) Garraio publikorako erreserbaturiko erreietan.
- k) Espaloirik ez duten urbanizatutako kaleetan, horretarako seinaleztatutako tokietan izan ezik.
- l) Desgaitasuna dutenek eta beste inork ez erabiltzeko toki seinalatuetan.
- m) Behar bezala seinaleztatutako pasabideetan, osorik edo parte batez.
- n) Galtzadaren erdian, espresuki baimendurik egon ezean.
- o) Udal-agintaritzak ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitutako lekuetan, horretarako baimena ematen duen bereizgarria jarri gabe edo, bereizgarria jarrita ere, ibilgailua aparkaturik badago gehienez baimendutako denbora baino gehiago.
- p) Oinezkoendako pasabideetan, txirrindulariendako pasabideetan eta bizikleta-bideetan.
- q) Ilaran aparkatzean, dauden seinaleen arabera baterian aparkatu behar bada.
- r) Bide bazterrean.
- s) Aldi batean bestelako erabilera edo jarduketetarako okupatu behar diren tokietan. Toki horiek behar bezala seinaleztatu behar dira, gutxienez ere hogeita lau ordu lehenago.
- t) Ibilgailu bat eremu publikoan aparkaturik gelditzen denean salgai edo alokagai jarri delako, eta funtsean publizitate helburuekin, edo kalez kaleko salmenta baimendu gabean edo bestelako jarduera ez zilegietan aritzeko, edo unean unekoa ez den konponketa-lan bat egiteko.
- u) Landa eta orubeetan, hara sartzeko modu bakarra espaloietan barna denean. Lorategi-eremuetan.
- v) Aparkatzeko baimen-txartela behar ez bezala erabilita aparkatzea.



w) Desgaituendako aparkatzeko baimen-txartela behar ez bezala erabilita aparkatzea⁶.

2. Nolanahi ere, ibilgailuaren jabeak egiaztatu behar du, berez edo bertze pertsona edo bitarteko baten bidez, bere ibilgailua ez dagoela behar ez bezala aparkaturik, seinaleak edo trafikoaren antolamendua nolanahi aldatu direlako; horretarako, berrogeita zortzi orduko epea izanen du gehienez, horretarako egun baliodunak kontatuko direla.

V. TITULUA.- KULTUR EDO KIROL EKITALDIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUKETAK BIDE PUBLIKOAN.

66 artikulua.- Baimenak.

Ordenantza honen xede diren bideen okupazioa gauzatzeko, bide publikoan kultur edo kirol ekitaldiak egin beharrez, Udalak aurrez baimendu beharko du eta Zirkulazio Araudi Orokorren II. eranskinean (kirol-probei, bizikleta-ibilaldiei eta bestelako ekitaldiei buruzkoa) zein udal-agintaritzak adierazitako berariazko arauak zedarrituko dute okupazio hori. Udalaren baimenean jasota agertuko dira baimendutako probak egiteko bete beharreko baldintza partikularrak eta horiek bete beharko ditu baimenaren titularrak.

67. artikulua.- Baimen-eskaera.

Jarduera noiz egin behar den, gutxienez 3 hilabete lehenago eskatu beharko du baimena interesdunak, betiere bere tamainarengatik hura gauzatzeko udal-langileen zerbitzu berezia beharrezkoa bada, aski ez izaki ohiko zerbitzua. Eskaera egiteko arauzko eskabidea bete eta aurkeztu behar da Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrean, non adieraziko baita ekitaldiaren izaera eta iraupena, bai eta plano batean xehe-mehe jasoko ere ekitaldiaren ibilbidea eta okupatu beharreko eremuak.

68. artikulua.- Baimena ematea.

Dagokion administrazio-espeditentea bideratu ostean emanen da eskatutako baimena, eta bertan jasoko dira hala hartu beharreko segurtasun-neurriak nola eskatzaileak bete beharreko baldintzak.

69. artikulua.- Laguntzaileak egon beharra.

1. Laguntzaileen esku-hartzea beharrezkoa den kirol-proben antolaketan, pertsona bat izendatu beharko da ekitaldia zuzentzeko ardura edukiko duena, eta beste bat, bide-segurtasunaz arduratzeko (hark bete beharreko baldintzak eta eginkizunak Zirkulazioari buruzko

⁶ Paragrafo hau gehitu da urriaren 1eko Desgaitasunari buruzko ordenantzaren aldaketaren ondorioz.



Erregelamendu Orokorraren II. Eranskinean jasota daude).

2. Behar beste laguntzaile arituko da ekitaldiaren ordena eta kontrola mantentzen.
3. Kirol-proba gauzatu baino lehenago, Udaltzaingoa zerbitzuaren jarraibideak emanen dizkie antolatzaileei, bertan adierazita zer egin behar duten laguntzaileek zirkulazioa itxi edo desbideratzeko, bai eta proba behar bezala gauzatzeko ere.

70. artikulua.- Bide-segurtasuneko arduraduna.

1. Bide-segurtasuneko arduradunak edukiko du bere ardurapean esku hartzen duten laguntzaile guztien jarduna, eta horietako bakoitzari esanzen dio zehatz-mehatz zer egin behar duen, betiere Udaltzaingoa ezarritako zerbitzuaren arabera.
2. Proba egiten hasi baino lehenago, behar besteko denboraz bide-segurtasuneko arduradunak egiaztatuko du laguntzaile guztiak daudela dagokien postuan eta pertsona guztiak ari direla betetzen beren zeregina. Behin hori egiaztatutik, horren berri emanen dio Udaltzaingoa operatiboaren ardura daukanari, hori ziurtatzen duen ziurtagiri bat sinaturik.
3. Operatiboaren ardura duen Udaltzaingoko kideak jakinaraziko die antolatzaileei proba has daitekeela, eta hura ezin izanen da inoiz hasi zerbitzuan jasota dauden postu guztiak bete gabe, hala polizien postuak nola laguntzaileenak.

71. artikulua.- Fidantza.

1. Baimenarekin batera eskatzaileari fidantza bat jartzeko eskatzen ahalko zaio, lagatutako materiala (hesiak, konoak, seinaleak...) mantendu eta itzultzearen gainean zein hiri-altzarietan edo bide publikoan gerta daitezkeen kalteen gainean erantzute aldera.
2. Antolatzaileek galtzadan markarik egin behar izanez gero, asfaltozko aglomeratuko zoladura gainean baino ez dira eginen, ez beste ezeren gainean, eta markak egun gutxiren buruan ezabatzen diren pinturaz egin behar dira.

72. artikulua.- Espazio-erreserbak.

1. Espazio-erreserbetan aparkatze-eremurik okupatu behar izanez gero, erreserbak eragiten dion eremua hogeita lau ordu lehenagotik seinaleztatu beharko da. Aparkatzeko debekuaren seinaleari testu bat gehituko zaio azaltzeko zergatik, noiztik eta noiz arte okupatu behar den eremua. Espazio-erreserba gauzatzeko eskatzen ahalko zaie ekitaldiaren antolatzaileei, eta hura mantentzea haien zeregina izanen da.
2. Erreserba egiten denean aparkaturik dauden ibilgailuak, behin 24 ordu igarota bertan segitzen badute, beste toki batera edo Udalaren ibilgailu-biltegira eramanen ditu garabi-zerbitzuak, eta baimenaren titularrari galdatzen ahalko zaio erabili behar izan diren zerbitzuak eragindako gastuak ordain ditzan. Hori horrela, udal-administrazioak baimena eman baino lehen, fidantza bat jartzeko galdatzen ahalko du, horren zenbatekoa baimenean jasota egonen delarik. Garabi-gastuak aipatu fidantzatik kenduko dira.



3. Baimenak hartzen duen eremuan –behin hura garbitu eta behar bezala seinaleztaturik– aparkatzen duten ibilgailuei salaketa jarriko zaie behar ez bezala aparkatzeagatik eta garabizterbitzuak erretiratuko ditu, haien bizkar joanen direlarik zerbitzu hori erabiltzeak eragindako gastuak.

73. artikulua.- Ibilbidearen seinaleztapena.

1. Antolatzaileen kargura joanen da ibilbidea seinaleztatzea; hortaz, beraiek jarriko dute beharrezko materiala. Nolanahi ere, Udaltzaingoa gainbegiratuko ditu ekitaldia hasi baino lehen seinale eta baliza-elementu horiek (hesiak, konoak edo beste edozein).
2. Udaltzaingoa, ez beste inork, jarriko ditu seinale-elementuak zirkulazioa itxi edo desbideratzeko ibilbidea hasi baino lehen, zirkulazioak eraginik ez izateko ibilbidean.



74. artikulua.- Baldintzak ez betetzea.

Baimenean jasotako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du hala baimena errebokatzea nola dagokion zehapen-espeditentea abiatzea.

VI: TITULUA.- IBILGAILU ABANDONATUAK.

75. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

1. Ibilgailu abandonatuak erretiratuko dira, kalean denbora mugarik gabe egon ez daitezten.
2. Ibilgailu bat eremu publikoan abandonaturik dagoela uste izatekoa izanen da leku berean hilabete baino gehiago aparkaturik gelditzen denean eta berez mugitzea ezinezko egiten duten hondaketak ditueneko edo matrikula plakak falta zaizkionean.
3. Bizikleten kasuan, Ordenantza honen 38. artikuluan (Bizikletak erretiratzea) xedatutakoa beteko da.
4. Ibilgailu bat abandonaturik dagoela uste izatekoa izanen da, orobat, eremu publikotik kendu eta biltegia gorde denetik bi hilabete baino gehiago iragan direnean.

76. artikulua.- Prozedura.

1. Ibilgailuak eremu publikoan daudenean, Iruñeko Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta hamar egun naturaleko epea emanen dio ibilgailua dagoen tokitik erretiratzeko. Ibilgailuak edozein arrisku motarik sortzen ahal badu, hura erretiratzen ahalko da eta hori gero jakinarazi titularrari.
2. Bizikleten kasuan, Ordenantza honen 38. artikuluan (Bizikletak erretiratzea) xedatutakoa beteko da.
3. Aitzineko paragrafoan aipatutako epean titularrak ez badu ibilgailua erretiratzen, hura Udalaren ibilgailu-biltegia eramanen da.
4. Abandonaturik egoteagatik edo beste arrazoiren batengatik ibilgailu bat biltegia eramaten denetik bi hilabete iraganda, errekerimendua eginen zaio titularrari hilabeteko epean eraman dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, hiri hondakin solidoa balitz bezala erabiliko dela.
5. Orokorrean eta bidezko arrazoirik izan ezean, ibilgailuak erretiratu eta zaintzeko gastuak horiek biltegitik eraman aitzin ordaindu beharko dira.



VII. TITULUA.- ZAMA ARRISKUTSUEN GARRAIOA ETA IBILGAILU BEREZIAK.

77. artikulua.- Zirkulazioa.

1. Debeku dute Iruñeko udal-mugartean zehar ibiltzea Salgai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren gainean indarra duen Erregelamendu Nazionalaren 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan sartutako salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, aldi berean Erregelamendu horren 1. edo 2. arrisku-etiketak eraman behar badituzte, bertako ingurubide eta saihebidetan salbu.

2. Ibilgailu horiek aitzineko lerroaldean aipatu eremua zeharkatzeko, Udaleko organo eskudunaren baimena beharko dute. Hartan zehaztuko dira garraio horren mugak egun, ordu eta ibilbideei dagokienez.

78. artikulua.- Aparkatzea.

77. artikuluan aipatutako ibilgailuek guztiz debekaturik dute Iruñeko udal mugarte osoan aparkatzea.

79. artikulua.- Ibilgailu bereziak.

Beren ezaugarri bereziengatik, neurriengatik edo zamaren kokapenagatik Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baimenak behar dituzten ibilgailuek eskaera egin beharko diote Iruñeko Udalari, Udaltzaingok eman diezaien udalerrian barna gidatu, zaindu eta lagun egiteko zerbitzua, eta horrek dagokion tasa –Iruñeko Udalaren ordenantza fiskalean jaso– sorraraziko du.

80. artikulua. Bestelako ibilgailuak.

1. Debeku da Iruñeko udal-mugarteko hiri-bideetan animaliek tiraturiko ibilgailuak eta zelako animaliak ibiltzea, salbu espresuki baimena eman eta hartan zer bidetan eta zer baldintzatan ibil daitezkeen adierazitako kasuan.

2. Trizikloak ez dira ibiltzen ahalko ez bizikleta-bideetan ezta espaloietan ere, metro bat zabal baino gehiago badira.

VIII. TITULUA.- SEINALEZTAPENA.

I. KAPITULUA. INSTALAZIOA.

81. artikulua.- Kokapena.

1. Udaleko organo eskudunak aginduko du kasu bakoitzean bidezko diren trafikoko seinaleak ezartzea, kentzea eta ordezkatzeta. Oro har, partikularrek ezinen dute trafikoko edo zirkulazioko seinalerik paratu, salbuespenak izan ezik, hala nola ibilgailuendako pasabide-seinaleak, aurrez

Udaleko organo eskudunak horretarako baimena eman eta gero.

2. Ordenantza honen xede diren bideen erabiltzaile guztiak beharturik daude zirkulazioko seinaleei men egitera eta beren portaera egokitzera beraiek doazen bideetan aurkitzen dituzten gainerako erregelamenduzko seinaleen mezuaren arabera.

82. artikulua.- Aplikazioa.

Hiriko sarbideetan paratzen diren seinaleek, banaka edo karteletan multzoka jarrita, udal-mugarte osoan izanen dute indarra, karrika tarteren baterako seinale berariazkoak izan ezik.

Oinezkoen eremuetarako sarbideetan, bizitegi-kaleetan, zirkulazio murriztuko edo aparkatze mugatuko gainerako aldeetan eta 30 km/h-ko abiadura-muga duten eremuetan jarritako seinaleek perimetroko barne bide guztietan izanen dute indarra, beste seinale batek berariaz salbuespena adierazitako kasuetan izan ezik.



II. KAPITULUA. EDUKIA.

83. artikulua.- Edukia.

Partikularrek (hotelak, jatetxeak, garajeak eta beste) ezinen dute seinalerik paratu, salbuespenezko kasuetan izan ezik; halakoetan Udalaren baimena beharko da. Ez da baimenik emanen trafiko seinaleen gainean nahiz ondoan plakarik, afixarik, iragarkirik edo bestelakorik paratzeko, nahasmendua ekarri, haien ikusgaitasuna edo eraginkortasuna murriztu edo bidearen erabiltzaileei arreta galarazten ahal badiete.

Zirkulaziokoak ez diren seinale guztiak berehala kenduko dira, behar bezala baimendurik ez badaude edo udal-baimenaren baldintzak betetzen ez badituzte, ezertan galarazi gabe Gizalegezko Jokaeren Sustapenari buruzko udal-ordenantzaren arabera egokitzen ahal zaion zehapena.

Zirkulazioko Seinale eta Bideko Marken Katalogo Ofizialean ohartarazi, jakinarazi, agindu edo arautu nahi denari dagokion esanahia duen seinalerik ez bada, Udalak onetsiko du egokiena iruditzen zaion seinale-eredua edo seinale-multzoa.

Delako seinalea edo seinale multzoa diseinatzeko, ahaleginak eginen dira aipatu katalogoko forma, sinbolo eta hiztegi berariazkoak erabiltzeko, oker egiteko biderik eman gabe.

84. artikulua.- Bizikleta-bideak.

Bizikleta-bideek seinale berariazkoak izanen dituzte, zutikakoak nahiz etzanak.

Seinale etzanek zirkulazioaren noranzkoa adieraziko dute, eta ohartaraziko hurbil dela oinezkoen pasabidea, semaforoa edo elkargunea.

Zutikakoek oinezkoekin partekatzen diren eremuak arautuko dituzte, baita semaforoak dituzten bidegurutzeetan nahitaez egin behar diren geldialdiak ere, eta ibilgailu motordunen gidariei ohartaraziko diete txirrindulariak heldu direla zirkulazioaren bi noranzkoetan.

Seinale horiez gain eta horien osagarri, Udalak beste seinale batzuk ere paratzen ahalko ditu, argibideak emateko eta jendea kontuz ibil dadin ohartarazteko.

Galtzadak gurutzatzeko seinaleak honelakoak izanen dira: marra bikoitz etena, zuria, 0,40 m zabal eta 0,50 m luze, tarte bera dagoela hurrengo markaraino eta bi marren artean tarte aldakorra dagoela, bidegorriaren zabalera zein den eta horren arabera.



IX. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. KAUTELAZKO NEURRIAK.

I. KAPITULUA.- IBILGAILUAK IBILGETZEA.

85. artikulua.- Ibilgailuak ibilgetzea.

1. Udaltzainek eta Udaltzaingoko langile laguntzaileek ibilgailu bat ibilgetzen ahalko dute, Bide Segurtasunari buruzko araudiko aginduak ez betetzearen ondorioz hura erabiltzeak zirkulaziorako, pertsonendako edo ondasunetarako arrisku larria ekartzen ahal badu, baita honelakoetan ere:

- a) Istripuren edo matxuraren bat izan eta segurtasun baldintza ohikoetan bidean jarraitu ezinik gelditzen bada edo galtzada hondatzen badu.
- b) Gidaria ondoezik egon eta ibilgailua normaltasunez gidatu ezinean badago.
- c) Ageri bada gidaria edari alkoholduen eraginpean dagoela, edo droga toxikoak zein sorgogorriak hartu edo bere organismoan sartu baditu, edo botiken zein bestelakoen eraginpean egonda horiek arriskurik gabe gidatzeko gorputzez nahiz buruz behar den egoera bestelakotzen badute.
- d) Gidariak alkohola, sorgogorriak edo gisako beste gai batzuk hautemateko probak egin behar baditu eta horiek egiteari uko egiten badio edo proba horiek eginda, araudian gehienekotzat jotzen diren parametroak baino handiagoak ateratzen badira.
- e) Gidariak gidabaimenik ez duenean edo aldean duena baliozkoa ez denean.
- f) Ibilgailuak ez badu zirkulatzeko administrazio-baimenik, dela eskuratu ez duelako, dela hura baliogabetu edo indarra galdu duela deklaratu delako, edo zirkulazioa ahalbidetzen duen baimenaren baldintzak betetzen ez badira.
- g) Ibilgailuaren kanpo egoera dela-eta uste izatekoa denean arriskugarria dela, galtzadan kalte eragin dezakeela edo haren kargaren parte bat eremu publikora erortzen ahal zaiola.
- h) Zirkulatzen ari den ibilgailu baten garaiera edo zabalera handiagoa bada Bide Segurtasunari buruzko Legeak edo haren Erregelamenduak, edo ibilgailuaren beraren baimen bereziak, halakorik badu, baimentzen dituenak baino.
- i) Bidaiarien kopuru edo kokapenaren ondorioz edo garraiatzen diren objektuen kokapenaren ondorioz, gidariak mugitzeko eta ikusteko dituen aukerak modu nabarmen eta arriskutsuan murrizten badira, eta, betiere, bidaiarien kopuruak, gidaria kontatu gabe, gainditzen badu ibilgailuaren edukieraren ehuneko 50.
- j) Kateak edo pneumatiko bereziak erabiltzea nahitaezkoa izan eta ibilgailua horiek gabe ibiltzen bada.
- k) Ibilgailuak nahitaezko aseguratik ez badu.
- l) Gidaria edo bidaiaria babesteko kaskorik gabe edo haurrentzako segurtasun-gailurik gabe ibiltzen badira, halakoak nahitaez erabili beharrekoak direnean. Neurri hori ez zaie ziklistei aplikatuko.
- m) Ibilgailuak ateratzen duen asotsa eta aireratzen dituen gas eta keak indarra duen legeriak ezarritako mugak baino handiagoak badira.
- n) Arau-hausleak ez badu egiaztatzen Espainian duela legezko egoitza, non eta ez duen



ordaintzen udaltzainak behin-behinean ezarritako isunaren zenbatekoa. Nolanahi ere, kontuan hartuko da hasieran ezarritako isunaren zenbatekoa ehuneko 50ean murrizteko aukera dagoela, betiere ordenantza honen 92. artikularekin bat.

2. Ibilgailua ibilgetzeak ekartzen dituen gastuak titularraren bizkar izanen dira; horrek ordaindu beharko ditu edo ordaintzea bermatu, ibilgetzea kentzeko alde aurreko baldintza gisa, ezertan galarazi gabe ez defendatzeko duen eskubidea ezta Administrazioak ibilgetzeko neurria norengatik hartu duen eta erantzule horri erantzukizuna pasatzeko aukera ere.
3. Udal agintaritzak adierazten duen tokian gauzatuko da ibilgetzea, eta ez da indargabetuko harik eta hura eragin duten akatsak zuzendu edo ibilgailua agintaritza horrek zehazten dituen baldintzetan kentzen ez den arte, aitzinetik behar den tasa ordainduta, horrela ezarri bada.

II. KAPITULUA.- IBILGAILUAK ERRETIRATZEA.

86. artikulua.- Ibilgailuak erretiratzea.

Ibilgailua erretiratzera beharturik dagoenak unean bertan egiten ez badu, agintaritzako agenteek eta Udaltzaingoko laguntzaileek eremu publikotik kendu eta udal-biltegiara eramaten ahalko dute, kasu hauetan:

- a) Arriskutsua bada, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publikoen funtzionamenduari traba larria egiten badie, ondare publikoa hondatzen badu eta, orobat, ibilgailu hori bide publikoan abandonatua dagoela uste izatekoa bada.
- b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen bada.
- c) Ibilgailua bera hondatu delako ibilgetu bada.
- d) Arau-haustea egiteagatik ibilgailua ibilgetu eta arau-hausleak ez badu frogatzen bere ohiko bizilekua lurralde espainarrean duela eta isunaren zenbatekoa ez ordaintzera edo haren ordainketa ez bermatzera tematzen bada.
- e) Udal-agintaritzak ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitzen dituen tokietan ibilgailua aparkaturik gelditzen denean horretarako baimena ematen dion bereizgarria ezarri gabe, edo udal-ordenantzaren arabera ordaindutako denbora halako hiru egiten badu.
- f) Ibilgailua aparkaturik gelditzen bada zirkulaziorako edo zenbait erabiltzaile jakinen zerbitzurako soilik erreserbatutako erreietan edo bide-zatietan.
- g) Zabor-edukiontzia husteko lanak oztopatzen baditu.
- h) Ibilgailua legearekin bat ibilgetu behar denean, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe hori egiteko toki aproposik ez badago.

87. artikulua.- Arriskua eta zirkulazioa larriki trabatzea.

Aipatze aldera baizik ez, honako kasu hauetan ulertuko da ibilgailua 86. artikularen a) letran adierazitako egoeran dagoela eta, beraz, hura erretiratzeko arrazoiak daudela:

- a) Gelditzea debekaturik dagoen toki batean aparkatuta badago.



- b) Ibilgailua bigarren lerroan eta gidaririk gabe aparkatuta badago.
- c) Kantoi baten erpinetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik zati bat aterata beste gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartzen baditu.
- d) Oinezkoen pasabide seinaleztatu batean edo espaloian gutxitu fisikoak pasatzeko beheragune batean aparkatua badago.
- e) Ordutegi erreserbatuaren barnean pasabide bat osorik edo parte batean okupatzen badu.
- f) Zamalanetarako tokietan aparkaturik badago haiek erabiltzen diren orduetan eta zamalanik egin gabe.
- g) Garraio publikorako geraleku seinaleztatu eta mugatu batean aparkaturik badago.
- h) Larrialdiko edo segurtasuneko zerbitzuentzat berariaz erreserbatutako tokian aparkaturik badago.
- i) Desgaitasuna dutenei erreserbatutako toki batean aparkaturik badago.
- j) Espaloi, nasa, babesgune, irlatxo, ziklista-pasaleku edo -bide, edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan aparkaturik badago, espresuki baimenduta dagoenean izan ezik.
- k) Bidean ari diren gainerako erabiltzaileei trafiko-seinaleak ikustea eragozten badie.
- l) Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen badu.
- m) Bide batetik heldu diren gidariei beste bidea ikustea oztopatzen badie.
- n) Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati batean oztopatzen badu.
- o) Galtzadan aparkaturik egonda zirkulazioa trabatzen badu.
- p) Bizitegi-gune batean baimendutako orduetatik kanpo aparkaturik badago, espresuki baimendutako aparkalekuetan izan ezik.
- q) Bizitegi-gune batean aparkaturik badago, horretarako seinale edo bide-marka bidez espresuki gaitutako tokietatik kanpo.
- r) Landetan aparkatua badago, hara sartzeko modu bakarra espaloietan barna baldin bada.
- s) Lorategi-eremuetan aparkaturik badago.
- t) Garraio publikorako erreserbatutako erreietan aparkaturik badago.
- u) Taxien geralekuetan aparkaturik badago.
- v) Aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuak arautzen dituen ordenantzaren arabera ibilgailua ibilgetu edo erretiratzeko egoeraren bat gertatzen bada.
- w) Betiere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragozpen larria sortzen bazaie.

Salbu eta ibilgailua ebatsia denean edo, behar bezala frogaturik titularraren borondatearen kontra bestela erabiltzen denean, ibilgailua erretiratzen bada, horren ondoriozko gastuak titularraren kontura izanen dira; eta horiek ordaintzea edo haien ordainketa bermatzea aldez aurreko baldintza izanen da ibilgailua titularrari itzultzeko. Horrek ez du deusetan ukatzen errekurtsioa aurkezteko duen eskubidea, ezta gastu horiek istripua eragin, ibilgailua



abandonaturik utzi edo ibilgailua erretiratzea sortu duen arau-haustea egin duen pertsonari kobratzea.

88. artikulua. Beste zenbait kasu.

1. Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak erretiratu ahalko dira, honako kasu hauetan:

- a) Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatu den toki batean aparkatuta baldin badaude.
- b) Bide publikoa garbitu, konpondu, kontserbatu edo hartan seinaleak jarri ahal izateko ibilgailua kendu beharra badago.
- c) Larrialdietan.

2. Inguruabar horiek lehenbailehen jakinarazi beharko dira, eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanen dira ibilgailuak, halakorik izanez gero, edo udal-biltegiara, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.

3. Aipatu kasu hauek ez dute inolako ordainketarik sortaraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

89. artikulua.- Erretiratze-lanak bertan behera geratzea.

Baldin eta tasa ordaintzera behartzen duten zio batengatik ibilgailua eremu publikotik kentzeko lanak hasita gidaria agertzen bada, bertan behera utziko dira lan horiek, betiere dagokion ordenantza fiskalean kontzeptu horrengatik agertzen den tasa ordaintzen bada.



III. KAPITULUA.- ZEHAPEN PROZEDURA.

90. artikulua.- Prozedura.

Ordenantza honetan araututako gaietan jarraitu beharreko prozedura Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 6/2015 Errege Dekretu Legegilean ezarritakoa izanen da, eta horretan aurreikusirik ez dauden kasuetan aplikatuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.

91. artikulua.- Arau-hausteen tipifikazioa.

1. Arau-hauste arina izanen da ordenantza honetan xedatua ez betetzea, trafikoari buruzko araudian edo aplikatzekoa den beste araudi batean arau-hauste larriaren edo oso larriaren kalifikazioa ez baldin badu.

2. Arau-hauste oso larritzat joko dira desgaitasuna dutenendako txartela behar ez bezala erabilia gelditzea edo aparkatzea (paragrafo hau gehitu da Desgaitasunari buruzko ordenantzan, 2015eko urriaren 1ekoan, egindako aldaketaren ondorioz).

92. artikulua.- Laster ordaintzea.

Ordenantza hau ez betetzeagatik jarritako isunak % 50eko deskontuarekin ordaindu ahalko dira salaketa jakinarazi eta hogeita hamar egun naturaleko epean.

Isuna % 50eko beherapenarekin ordaintzeak berekin dakar alegazioak aurkezteari uko egitea, eta prozedura amaitzea berariazko ebazpena eman beharrik gabe, betiere kasuan kasuko errekurtsioak aurkeztea ezertan galarazi gabe.

93. artikulua.- Instrukzioa.

Ordenantza honetan arautuaren kontrako arau-hausteengatik abiatutako zehapen-espeditentak Alor eskuduneko Idazkaritza Teknikoak edo haren eginkizunak betetzen dituenak instruituko ditu.

Hura ez badago edo haren errefusatze edo abstentzioa, legezko arrazoia dela eta, gertatzen bada, Idazkaritza Teknikoaren ordezkari Alor eskuduneko legelari bat arituko da.

Instrukzioa burututa, udal organo eskudunak behar den ebazpena emanen du.



94. artikulua.- Udal-eskumenik eza.

Zehapena Udalaren eskumenekoa ez den arau-hausteen kasuan, Iruñeko Udaltzaingoa salaketa egiten du, eta ondoren Iruñeko Udalak berak administrazio eskudunari igorriko dio.

95. artikulua.- Gida-baimena etetea edo ezereztea eta puntu-galera.

Isunarekin batera gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena, edo puntuen galera ere eragin dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak – betiere zehapena Udalaren eskumenekoa den egitate batek sortu badu– dagozkion udal organoek instruitu eta ebatziko dituzte, eta ondoren aginte eskudunari igorriko zaizkio, soilik gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko balizko zehapena ezartzeko edo arau-hausleari emandako punturen baten galera eragiteko.

96. artikulua.- Jakinarazpenetarako helbidea.

Jakinarazpenak egiteko, gidariaren eta ibilgailuaren titularraren helbidetzat hartuko da gidari eta arau-hausleen erregistroan eta ibilgailuen erregistroan, hurrenez hurren, agertzen direnak. Interesdunak adierazten badu beste helbide bat daukala, hura aldatuko da, betiere instruzkio-egilearen ustetan hori ez bada egiten prozedura maltzurki oztopatzeko asmotan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA.- PASABIDE-LIZENTZIAK AURREKO ARAUDIAREKIN BAT.

1978ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran onetsitako ordenantzaren arabera emandako lizentziak automatikoki baliokidetuko dira, betiere ezertan galarazi gabe udal-zerbitzuek banan-banan egokitzapenak eskatzen ahal dituztela. Egokitzapenak, nagusiki, seinaleak homologatzeko izanen dira.

BIGARRENA.- IZATEZKO EGOERAK.

Ordenantza hau aldarrikatu eta indarra hartzean diren izatezko egoerak legeztatu beharko dira eta ordenantza honekin bat egin, kontuan hartu gabe egitatezko egoera horiek noiztik diren.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.

Ordenantza honek indarra hartuko du hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 6 hilabetera, eta argitalpena ordenantza behin betiko onetsita eginen da.

Indarririk gabe gelditu dira ordenantza honen aurka jotzen duten maila bereko edo txikiagoko udal-arauak. Zehatz-mehatz, ordenantza honek indarra hartzen duenean indarririk gabe geldituko da Iruñeko Hiriko Trafikoaren Udal Ordenantza, 53. Iruñeko Aldizkari Ofizialean, 2009ko maiatzaren 4koan, argitara emana.

BIGARRENA.

Ordenantzak indarra hartzeko 6 hilabeteko epearen barruan, abiadura mugatzeko “Iruña 30 Hiria” plana aurkeztuko da, non zehaztuko baita abiadura orokorra 30 km/h-ra mugatzeko neurria pixkanaka aplikatuko dela hiriko kale eta bide ezberdinetan, bai eta, beharrezko den kasuetan, hiri-sarean mugapen horri aplikagarri zaizkion salbuespenak ere.